

BESTELAKO XEDAPENAK

ENPLEGUKO ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA

3464

EBAZPENA, 2019ko uztailaren 4koa, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiarena. Horren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko kualifikazio apaleko gazte langabetuen aktibazio soziolaboralerako prestakuntza-ekintzak egiteko 2019-2021eko dirulaguntzen deialdia argitaratzen da.

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren Administrazio Kontseiluak, 2019ko uztailaren 4an hartutako Erabakiaren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko kualifikazio apaleko gazte langabetuen aktibazio soziolaboralerako prestakuntza-ekintzak egiteko 2019-2021eko dirulaguntzen deialdia onartu du. Maiatzaren 22ko 82/2012 Dekretuaren bidez onartutako Lanbideren Estatutuen 10.2 artikuluko p) letran xedatutakoaren arabera, erakunde autonomo horren zuzendari nagusiari dagokio deialdi hori argitaratzea.

Horiek horrela, hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Euskal Autonomia Erkidegoko kualifikazio apaleko gazte langabetuen aktibazio soziolaboralerako prestakuntza-ekintzak egiteko 2019-2021eko dirulaguntzen deialdia argitaratzea. Deialdi hori Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren Administrazio Kontseiluak onartu du, 2019ko uztailaren 4an hartutako Erabakiaren bidez, eta ebazpen honen eranskin gisara jaso da.

Bigarrena.– Jakinaraztea Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango dituela ondorioak laguntzen deialdia onartzen duen Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko Administrazio Kontseiluaren erabakiak.

Hirugarrena.– Deialdia onartzen duen Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko Administrazio Kontseiluaren Erabakiaren kontra berraztertze errekurtsoa jar dakiokela organo horri berari hilabeteko epean, Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzien Epaitegian, bi hilabeteko epean, ebazpena argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2019ko uztailaren 4a.

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusia,
JUAN JOSE BORJA BELANDIA FRADEJAS.

ERANSKINA

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO KUALIFIKAZIO APALEKO
GAZTE LANGABETUEN AKTIBAZIO SOZIOLABORALERAKO
PRESTAKUNTZA-EKINTZAK EGITEKO 2019-2021 ALDIKO
DIRULAGUNTZEN DEIALDIA

2017-2021 Gizarteratzeko Euskal Planak emandako definizioaren arabera, gizarte-bazterketa «gizarte-eskubideak gauzatzeko ezintasuna edo gaitasunik eza da, batez ere lan egiteko eskubideaz baliatzeko ezintasuna, baina baita ere hezkuntza eta prestakuntza jasotzeko eskubidea, kultura, osasuna, etxebizitza duina izateko eskubidea edo gizarte-babesa jasotzeko eskubidea».

Hori horrela, haren neurri guztiak gizarte-bazterketa egoeran dauden pertsonak gizarteratzea sustatzera bideratuta daude, eta arrisku-faktoreen intzidentzia –bai banakoena bai estrukturalena– murrizten duten jarduerak garatzera.

Eskubide sozialen Europako Zutarriari jarraikiz, etengabeko prestakuntza eta ikaskuntza herri-tarren eta bereziki gazteen enplegurako eskubide aktiboa babesten duten funtsezko ardatzak dira. Helburu estrategiko gisa ezartzen du ahultasun sozioekonomiko handieneko egoeran dauden pertsonak, haien adina edozein dela ere, kalitateko hezkuntza- eta prestakuntza-zerbitzuetara heltzen direla bermatzea, aukera-berdintasuna sustatzeko eta helduen mundura arrakastaz igaro daitezen.

Xede horrekin, besteak beste, ezartzen du ahultasun handieneko egoeran dauden gazteak 2. mailako profesionaltasun-ziurtagirietara hel daitezen laguntzea, era horretan enplegura igarotzea bultzatzearen. Horretarako, proposatzen du DBH bertan behera uzten duten hezkuntza-premia bereziko ikasleei eta sostengu premia handieneko gainerako kolektiboei –desgaitasun intelektuala duten pertsonen, bereziki– lanbide-heziketari lotutako prestakuntza-aukerak eskaintzea eta lan-mundura arrakastaz igarotzen direla erraztea.

Helburu berarekin, Hezkuntza Sailak egoera horretan dauden gazteak Oinarrizko Prestakuntza Zikloetarantz bideratzeko hezkuntza-politika bat hasi du, halaber. Nolanahi ere, ahalegin hori gorabehera, Lanbide Heziketa arautzen duen araudia aplikatzearen ondorioz (8/2013 Lege Organikoa, abenduaren 9koa, Hezkuntzaren Kalitatea Hobetzeko), ezin dute horietan parte hartu 17 urtetik gorakoek edo Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako lehen zikloa egin ez dutenek. Sartu eta onartzeko baldintza hori dela eta, prekarietate eta ahultasun sozioekonomikoko egoeran daude ehunka gazte, eta ezin dira sartu aukera-berdintasuna eta helduen mundura arrakastaz igarotzea errazten dituzten hezkuntza-zerbitzuetara.

Horren guztiaren ondorioz, Enpleguko eta Gizarte Politiketako Sailak, hautemandako arazo hori arindu nahian, prestakuntza-programa bat abian jarri nahi du, 2. mailako profesionaltasun-ziurtagiriei lotuta, prestakuntza-aukerak sortzeko; era horretan DBH amaitu ez duten eta, zenbait arrazoiengatik, oinarrizko kompetentziarik ez dutenez enplegurako prestakuntza jarraitu ezin duten 16 eta 25 urte bitarteko gazteak, honako kolektibo hauen profila dutenak, lan-mundura arrakastaz igaro daitezen errazteko:

– Lehen eta Bigarren Hezkuntzako etapak behin baino gehiagotan errepikatu dituzten ikasleak, titulua eskuratu gabe 17 urte egin dituztenak, eta, Oinarrizko LHko matrikula egiteko adina gainditzen dutenez, prestakuntza-bide horretara jotzerik ez dutenak.

– 16 urte baino gehiago dituztela iritsi diren gazte atzerritarrak eta, ondorioz, Bigarren Hezkuntzan eskolatu ez direnez, 2. mailako profesionaltasun-ziurtagiriak eskuratzeko baldintzak betetzen ez dituztenak.

– Oinarrizko LH hasi duten baina, zenbait arrazoi direla eta, bertan behera utzi dutenak, eta, hara itzuli nahi dutenean, arauzko prestakuntza-ibilbidea aldi baterako eten dutenez hara itzultzerik ez dutenak, eta horrenbestez, enplegarritasuna handitzeko prestakuntza hartzeko aukerarik gabe gelditu direnak.

Horretarako, Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuari, bere mendeko erakunde autonomoari, agindu dio ezen, aurretik aipatutako estrategia eta 2019-2021 aldirako Lanbideren Plan Estrategikoa aintzat hartuta, prestakuntza-programa bat diseinatu eta kudea dezan, haren 1. jardun-ardatza eta D1.3 gidalerroa oinarri hartuta. Horren helburua honako hau da: lan-merkatu inklusiboa lortzea, hura osatzen duten kolektibo eta talde guztientzat bidezko aukerak sortu eta eskaintzen dituen, gazteen enplegua sortzea eta gazte lan-arloan eta beren buruari dagokionez garatzeko aukerak eskaintzea.

Programa hori egiteko lagungarri, Euskadiko enplegurako Lanbide Heziketa arautzen duen maiatzaren 31ko 82/2016 Dekretua du, zeinaren 2. artikulua xedatzen baitu enplegurako lanbide-heziketa lanbide-heziketaren sistemetako bat dela, enpresen artean eta langileen artean, langabeak (lehentasunez) nahiz lanean ari direnak izan, lehiakortasun- eta kualifikazio-beharri zanei erantzuteko prestakuntza bultzatzea eta zabaltzea xede duten tresna eta ekintzez osatua. Prestakuntza horrek, halaber, gizarte kohezionatzen eta ekonomia garatzen lagunduko du, eza-gutzan oinarritutako ekonomiaren esparruan.

Halaber, Lehendakariaren azaroaren 26ko 24/2016 Dekretuak, Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazio sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituenak eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituenak, Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailari esleitzen dizkio enplegu-politika eta enplegurako lanbide-heziketa, Lanbide Heziketaren eta Etengabeko Prestakuntzaren arloarekin koordinazioan. Azken hori honako hauen arduraduna da: lanbide-heziketa osoaren planifikazio estrategikoa, diseinua eta ildoak prestatzearena, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren lankide-tzarekin, azken horrek dauzkan ardurei dagokienez.

Gainera, Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailari atxikitako Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzua erakunde autonomoari dagokio, beste zenbait funtzioen artean, enplegu-programen, enplegurako prestakuntza-programen eta autoenplegua eta enpresen sorkuntza sustatzeko programen kudeaketa. Egiteko horiek barne hartzen dute dagozkion dirulaguntza deialdiak onartu eta izapidetzea, hala ezarrita baitago maiatzaren 22ko 82/2012 Dekretuak onaturiko erakunde autonomoaren estatutuen 3.b) artikuluan. Enplegurako prestakuntzaren barnean, lehentasunez langabeei zuzendutako prestakuntza dago.

Horregatik guztiagatik, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiak proposatuta, erakunde honetako administrazio-kontseiluak, 2019ko uztailaren 4ko bilkuran, Euskal Autonomia Erkidegoko kualifikazio apaleko gazte langabetuen aktibazio soziolaboralerako prestakuntza-ekintzak egiteko 2019-2021 aldiko dirulaguntzen deialdia onartu du, honako baldintza hauen arabera:

1. artikulua.– Xedea eta baliabide ekonomikoak.

1.– Deialdi honen xedea hau da: 2019-2021 aldirako, oinarrizko kompetentzietako, kompetentzia soziopertsonaletako eta oinarrizko kompetentzia tekniko eta profesionaletako ibilbideak sortzen dituzten prestakuntza-proiektuak finantzatzeko laguntzak arautzea, era horretan prestakuntzaren

hartaileen garapen pertsonala eta laneratze zein gizarteratzea, baita 2. mailako profesional-tasun-ziurtagiriak eskura ditzaten ere, laguntzearren.

2.– Deialdi hau finantzatzera bideratuko diren diruzko baliabideak 1.618.500 euro dira; horietatik 407.250 euro 2019ko ordainketa-kredituari dagozkio, 809.250 euro 2020ko konpromiso-kredituari, eta 402.000 euro 2021eko konpromiso-kredituari.

Guztira emango diren laguntzen bolumenak ez du gaindituko aipatutako kopurua edo hori eguneratetik ateratzen dena, baldin eta indarreko legeriarekin bat aurrekontu-aldaketak onartzen badira, eta, hala bada, testuinguru hori Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiaren ebazpen baten bidez eman beharko da argitara EHAAn.

3.– Deialdi honen xede diren dirulaguntzak osorik edo hein batean kofinantzatu ahalko ditu Europako Gizarte Funtsak (EGIF) Gazte Enplegurako 2014-2010 Programa Operatiboaren esparruan:

2. artikulua.– Erakunde onuradunak.

1.– Deialdi honetan jasotako dirulaguntzen onuradun izan ahalko dira Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailaren edo Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailaren mendekoak ez diren prestakuntza-erakunde pribatu edo publikoak, betiere, deialdi hau argitaratu baino lehenago prestakuntzako entitateen erregistro autonomikoan edo Prestakuntza Entitateen Estatuko Erregistroan egiaztatuta edo izena emanda daudenak, dirulaguntza eskatzen den Prestakuntza Proiektuetako prestakuntza-ekintzei dagozkien prestakuntza-espezialitateak irakasteari dagokionez.

Prestakuntza-ibilbide bakoitzaren barnean dauden profesionaltasun-ziurtagiri bat gutxienez deialdi hau argitaratu aurretik egiaztatuta egon beharko da.

Prestakuntza-ibilbide bakoitzaren barnean dauden gainerako profesionaltasun-ziurtagirien eta zeharkako oinarrizko kompetentzien espezialitateetako egiaztatzea edota izen-ematea lehenengo prestakuntza-ekintza hasi aurretik egin beharko da.

2.– Dirulaguntza eskuratzeko, prestakuntza-erakundeek dirulaguntza eskatzen duten prestakuntza-ekintzak egiteko giza baliabideak eta materialak izan beharko dituzte, edo konpromisoa hartu beharko dute dirulaguntzaren esleipenaren ondoren horiek izango dituztela, prestakuntza-ekintzak hasten direnerako. Prestakuntza-ekintza gauzatzeko azpikontratatzea debekatuta dago. Ondorio horietarako, ez da azpikontrataziozat jotzen prestakuntza emateko irakasleak (pertsona fisikoak) kontratatzea.

Instalazio eta baliabide horiek entitatearenak edo hirugarren entitate pribatu edo publikoen titulartasunekoak izan ahalko dira, eta, eskabidean aipatzen diren prestakuntza-ekintzak programatuta dauden lurraldeetan izan beharko dituzte eskura baliabide horiek. Hirugarren erakunde pribatu edo publikoen titulartasunekoak badira (onargarria, baldin eta prestakuntza-jardueraren gauzatzea azpikontratatzan ez badu), dagokion akordioa edo eskuragarritasun-kontratua aurkeztu beharko dute.

Informazio hori egiaztatzeko, entitatearen legezko ordezkariaren erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu beharko da eskabidearekin batera, eta adierazpen horretan zehaztu beharko da zer instalazio dituen edo izango dituen entitateak prestakuntza-ekintza bakoitza egiteko, bai eta instalazio horiek zer eskualde eta lurraldetan kokatuta dauden ere.

Edonola ere, erakunde eskatzaileak adierazpen horretan jasotako datuak egiaztatzeko dokumentazioa prest izan beharko du Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuarentzat.

3.– Ezingo dira izan onuradunak honako egoera hauetako batean diren erakundeak:

a) Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean ez izatea.

Organo kudeatzaileak automatikoki egiaztatuko du betebeharrak horiek egunean dituela, bai dirulaguntza eman aurretik, bai ordainketak egiteko unean, eta ez du eskatzaileen baimenik beharko, hala xedatzen baitu azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren bidez onartutako Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bateginak, 50.3 artikuluan.

Hala ere, eskatzaileak berariaz uka dezake baimen hori, eta, halakorik egiten baldin badu, baldintza hori betetzen duela egiaztatzen duten ziurtagiri eguneratuak aurkeztu beharko ditu.

b) Dirulaguntzak itzultzeko betebeharrak ordainduta ez edukitzea.

c) Eskatzaileak zigor- edo administrazio-zehapenen bat izatea, dirulaguntzak edo laguntza publikoak eskuratzeko aukerarik gabe uzten duenik, eta horretarako ezgaitzen duen lege debekuren bat izatea, aurrez izandakoak barne:

– Sexu-bazterkeriagatik zigorren bat jaso izana, otsailaren 18ko 4/2005 Legeak, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoak, edo martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoak, Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eraginkorrerakoak, ezarritakoaren arabera.

– Abuztuaren 4ko 5/2000 Legegintzako Errege Dekretuak onarturiko Lan-arloko arau-hausteei eta zehapenei buruzko Legearen testu bateginak 46.1.b) eta 46.bis.1.b) artikuluetan xedatutako zehapen osagarri batek hala ezartzen badu.

d) Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikuluen 2. eta 3. apartatuetan xedatzen diren gainerako egoeraren batean egotea.

3. artikulua.– Diruz lagun daitekeen jarduera.

1.– Deialdi honen babesean dirulaguntza jaso ahal izango dute oinarrizko kompetentziako, kompetentzia soziopertsonaletako eta oinarrizko kompetentzia tekniko eta profesionaletako ibilbideak sortzen dituzten prestakuntza-proiektuek, betiere ikasleen garapen pertsonala zein gizarteratzea eta laneratzea ez ezik, 2. mailako profesionaltasun-ziurtagiriak eskuratzeko ere errazten badute (I. eranskinean jasota daude).

2.– Finantzatutako prestakuntza-ibilbideek kualifikazio apaleko gazte langabetuen enplegagarritasuna eta laneratzea handitzea dute helburu.

3.– Prestakuntza-ibilbideek 1.850 orduko iraupena izango dute, lantokiko prestakuntza barne. Bi bloke edukiko dituzte; lehenak 900 ordu izango ditu, eta bigarrenak 950 ordu. Bloke bakoitzak kompetentzia profesionalak eskuratzeko prestakuntza eta zeharkako oinarrizko kompetentziak eskuratzeko prestakuntza izango du lotuta.

A blokea		B blokea		Orduak guztira
Prestakuntza mota	Ordu kopurua	Prestakuntza mota	Ordu kopurua	
Kompetentzia profesionalei lotutako prestakuntza + Lantokiko prestakuntza-moduluak	440*	Kompetentzia profesionalei lotutako prestakuntza + Lantokiko prestakuntza-moduluak	590*	1.030*
Zeharkako oinarrizko kompetentziei lotutako prestakuntza	460**	Zeharkako oinarrizko kompetentziei lotutako prestakuntza	360**	820**
Guztira	900	Guztira	950	1.850

* era horretako prestakuntzara gutxienez bideratu beharreko ordu kopurua (ibilbidearen arabera eta I. eranskinean zehaztutakoari jarraituz)

** era horretako prestakuntzara gehienez bideratu beharreko ordu kopurua (ibilbidearen arabera eta II. eranskinean zehaztutakoari jarraituz)

4.– I. eranskinean prestakuntza-ibilbide programagarriak daude, ondoren zehaztutako prestakuntza mota bakoitzeko ibilbidearen arabera ordu kopurua barne:

1) 1. mailako profesionaltasun-ziurtagiriak lortu aurreko prestakuntza.

2) 1. mailako profesionaltasun-ziurtagiriak.

3) Egiazta daitezkeen bestelako prestakuntza-modulu partzialak.

4) Aurretik aipatutako espezialitateak egiaztatzea bermatzen duen lantokiko prestakuntza, eta azkenik.

5) Zeharkako oinarrizko kompetentzietan lotutako prestakuntza.

Prestakuntza gaitzailera (1., 2., 3. eta 4. motakoak), guztira eta gutxienez, 440 ordu bideratuko dira A blokean, eta 590 ordu B blokean; kopurua aldatuko da ibilbide programagarrien artean, I. eranskinean zehaztutakoaren arabera.

5.– Zeharkako oinarrizko kompetentzietan lotutako prestakuntzaren iraupena (4. puntuaren adierazitako 5. mota) zehaztuta dago, halaber, prestakuntza-ibilbide bakoitzari dagokionez, I. eranskinean; gehienez 460 ordu iraungo du A blokean, eta 360 ordu B blokean. Prestakuntza-orduek funtsezko kompetentziak, kompetentzia soziolaboralak eta kompetentzia digitalak emateko izango dira, FCO (Prestakuntza osagarria), SSC (Gizarte- eta kultura-zerbitzuak) eta IFC (Informatika eta komunikazioak) lanbide-arloen barruan; enplegurako prestakuntzaren lanbide-arlo guztien zeharkako kompetentziak dira horiek. Oinarrizko prestakuntza hau bideratuta dago parte hartzen dutenak 2. mailako profesionaltasun-ziurtagiriak eskura ditzaten gaitzera eta/edo haien enplegagarritasuna handitzera. II. eranskinean funtsezko kompetentzien (Gaztelania, Matematika, Ingelesa eta Euskara), kompetentzia soziolaboralen eta kompetentzia digitalen espezialitateen katalogo bat jasota dago. Prestakuntza-erakundeek, parte-hartzaile talde bakoitzaren kualifikazio-maila eta prestakuntza-beharrak zein diren kontuan hartuta, espezialitate horiek aukeratuko dituzte prestakuntza-ibilbide programagarri bakoitzerako finantzatu beharreko gehieneko ordu kopurura iritsi arte.

6.– Lantokiko lehen prestakuntza-modulua ibilbidearen lehen prestakuntza-blokea amaitzean egingo da, eta 150 ordu inguru izango ditu. Bigarren blokeari lotutako prestakuntza amaituta, lantokiko prestakuntza praktikoko bigarren modulua egingo da; 200 ordu inguru iraungo du. Prestakuntza praktikoko ordu kopurua aldatuko da, proposatutako ibilbideetan parte hartzen dutenek egin beharreko profesionaltasun-ziurtagiriek eskatutako ordu kopuruaren arabera.

7.– Profesionaltasun-ziurtagiriak bereiz eman ahal izango dira profesionaltasun-ziurtagiria osatzen duen prestakuntza-modulu bakoitzari dagokionez; era horretan, behar den malgutasuna emango zaio prestakuntza-prozesuari, eta ikasle gehiago sartu ahal izango dira, modulu bakoitza hastean bete gabeko plazarik balego. Erakundeak prestakuntza horiek bereiz edo ez ematea erabaki ahal izango du profesionaltasun-ziurtagiri bakoitzeko lehen modulua hasten denean.

8.– Prestakuntza emateko modalitatea.

Prestakuntza-ekintzak aurrez aurreko modalitatean eman beharko dira.

Aurrez aurreko prestakuntzat jotzen da ikasgela batean irakasleek ikasle talde bati ezaguera berak eta aldi berean transmititzen dizkietenean, edozein motatako baliabide didaktikoak erabilia.

9.– Dirulaguntza jasotzen duten prestakuntza-ibilbideei 2019ko abenduaren 31 baino lehen ekin beharko zaie, dirulaguntza emateari buruzko ebazpena jakinarazi ondoren, eta ibilbide osoa

amaitu beharko da 2021eko azaroaren 16a baino lehen (lantokiko prestakuntza praktikoaren modulua barne). 2020ko azaroaren 16a baino lehen amaitu beharko dira prestakuntza-ibilbideen A blokean jasotako prestakuntza-ekintza guztiak (lantokiko prestakuntza praktikoko modulua barne), eta prestakuntza-ibilbide bakoitzeko B blokean jasotako prestakuntza-ekintza bat gutxienez hasita egon beharko da.

10.– Prestakuntza-ekintzak onartzeko, diruz lagundu beharreko gehieneko partaide kopurua 15 izango da, eta gutxienezkoa 10. Horrela, prestakuntza-ekintzak ezingo dira hasi 10 partaide baino gutxiagok izena eman badute.

Nolanahi ere, dirulaguntza jasoko dutenez gain, beste 2 parte-hartzaile sartzeari onartuko da prestakuntza-ekintzetan, zentroak partaide kopuru hori hartzeko egiaztapena badu, betiere. Partaide gehigarri horiek ez dute dirulaguntzarik jasoko.

11.– Prestakuntza-ekintzaren alde teoriko eta praktikoa baino ez da diruz lagunduko. Ez da diruz lagunduko lantokiko prestakuntza praktikoaren modulua.

4. artikulua.– Prestakuntzaren hartzaileak.

Deialdi honen babesean diruz lagundutako prestakuntza-ekintzetan parte hartu ahal izango dute 16 eta 25 urte bitarteko langabetuek, baldin eta DBH egin ez badute eta, zenbait arrazoiengatik, 2. mailako profesionaltasun-ziurtagiriak egiteko aukerarik ez badute, betiere Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuan edo Gazte Bermerako Sistema Nazionalaren Fitxategian izena emanda badaude. Era berean, beste autonomia-erkidego bateko enplegu-zerbitzu publikoan izena emanda dauden gazte langabeek ere parte hartu ahal izango dute.

5. artikulua.– Dirulaguntzaren zenbatekoa.

1.– Prestakuntza-proiektuaren dirulaguntzaren zenbateko osoa hura osatzen duten prestakuntza-ibilbideen dirulaguntzaren zenbatekoak batuta aterako da.

2.– Prestakuntza-proiektuen finantzaketa parte-hartzaile eta prestakuntza-ordu bakoitzeko kostuaren araberakoa izango da, parte-hartzaile bakoitzeko 5,00 euro/orduko modulu ekonomikoari jarraikiz.

Parte-hartzaile bakoitzeko 5,00 euro/orduko modulu ekonomiko hau honako modulu hauez osaturik dago:

A modulua. Langileen kostu zuzenak. 3,67 euro/ordu/parte-hartzaile.

B modulua. Funtzionamendu-gastuak. 0,88 euro/ordu/parte-hartzaile.

C modulua. Zeharkako gastuak. 0,45 euro/ordu/parte-hartzaile. Aurreko bi moduluen % 10 da.

Langileen zuzeneko kostuei dagokien modulu ekonomikoa 15 partaidez biderkatuko da beti.

Aurrekoarekin bat etorritz, prestakuntza-proiektuak zenbateko honekin onartuko dira:

Prestakuntza teorikoaren ordu kopurua * 15 partaide * 5,00 euro.

6. artikulua.– Eskabideak aurkeztea.

1.– Deialdi honen esparruko dirulaguntzak jasotzeko eskabideak elektronikoki izapidetuko dira, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren aplikazio informatikoaren bidez (LAN-F).

2.– Ibilbide osoetarako eskabidea egingo da, I. eranskinean jasotako lurralde bakoitzeko ibilbide-zenbakia aukeratuta.

3.– Dirulaguntzaren eskaerarekin batera dokumentazio hau aurkeztu beharko da:

1) Oro har:

a) Eskaera egiten duen erakundearen legezko ordezkariaren erantzukizunpeko adierazpena. Bertan, dirulaguntza eskatzen duten prestakuntza-ekintzak egiteko giza baliabideak eta materialak dituztela bermatuko dute, edo dirulaguntzaren esleipenaren ondoren horiek izateko konpromisoa hartu beharko dute, prestakuntza-ekintzak hasten direnerako. Gainera, prestakuntza-ekintzak egiteko erakundeak dituen edo izango dituen instalazioak zehaztuko dira, prestakuntza-ekintzak egiteko erabiliko direnak.

b) Erakunde eskatzailearen identifikazio fiskaleko txartelaren fotokopia.

c) Diruz laguntzea nahi den prestakuntza-proiektua.

2) Gainera, balorazio-irizpideak egiaztatzeko, hala dagokionean:

a) 9.1 artikuluko C apartatuan aurreikusitako balorazio-irizpidea egiaztatzeko: ez da inolako dokumentaziorik aurkeztu beharko, Hezkuntza Sailak datu horiek jada eman dizkiolako Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuari.

b) 9.1 artikuluko E apartatuan xedatutako balorazio-irizpideak egiaztatzeko, beste administrazio publiko batzuetako deialdiak aipatzen direnean: enplegurako lanbide-heziketaren arloan esku-mena duen eta deialdia kudeatzen duen administrazio publikoaren ziurtagiria aurkeztu beharko da, sintesi-adierazlea eta enplegarritasun-indizea egiaztatzen dituen, III. eta IV. eranskin gisa argitaratutako ereduaren arabera, hurrenez hurren.

c) 9.1 artikuluko D.1 apartatuan xedatutako balorazio-irizpidea egiaztatzeko, berriz, txosten hauek aurkeztu beharko dira:

– Alta egoeran dauden langileen batez besteko plantillaren txostena (Gizarte Segurantzako Diruzaintza Nagusiak egina), prestakuntza-erakundeak dituen kotizazio-kontuen kode guztietarako.

– Merkataritza-sozietateek, horrez gainera, administratzaileen kotizazio-kontuen kodeari dago-kion lan-bizitzaren txostena aurkeztu beharko dute, halakorik badute, edota administratzaile guztien lan-bizitzen txostenak (Gizarte Segurantzako Diruzaintza Nagusiak eginak).

– Deialdira aurkezten diren kooperatibek, aldiz, beste horiez gainera, sozietatearen kotizazio-kontuaren kodeari dago-kion lan-bizitzaren txostena (Gizarte Segurantzako Diruzaintza Nagusiak egina) aurkeztu beharko dute, Gizarte Segurantzako Araubide Orokorrean alta emandako langile bazkide guztiena, edo, azken horiek Langile Autonomoen Araubide Berezian izena emanda badaude, ziurtagiri bat, bazkideen liburuaren kopia erantsita, bai eta langile horien kopurua adierazi ere.

d) 9.1 artikuluko D.2, D.3 eta D.4 apartatuetan xedatutako balorazio-irizpideak egiaztatzeko, berriz, txosten hauek aurkeztu beharko dira:

– Prestakuntza-erakundeak dituen kotizazio-kontuen kode guztietako lan-bizitzaren txostenak, administratzaileei dagozkienak barne, halakorik bada; eta, kooperatiba-sozietateen kasuan, Gizarte Segurantzako Araubide Orokorrean izena emandako langile bazkide guztiena (Gizarte Segurantzako Diruzaintza Nagusiak egina).

– Merkataritza-sozietateek, horrez gainera, administratzaileen kotizazio-kontuen kodeari dagokion lan-bizitzaren txostena aurkeztu beharko dute, halakorik badute, edota administratzaile guztien lan-bizitzen txostenak (Gizarte Segurantzako Diruzaintza Nagusiak eginak).

– Deialdira aurkezten diren kooperatiba-sozietateek, langile bazkideak autonomoen araubidean izena emanda badaude, ziurtagiri bat aurkeztuko dute, bazkideen liburuaren kopia erantsita, bai eta langile horien kopurua adierazi ere.

Nolanahi ere, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiari eskatu ahal izango dio 9. artikuluko D.2, D.3 eta D.4 apartatuetan adierazitako formuletan zerrendatutako kontratu-kodeen kontratu-modalitatearen bidez kontratatutako pertsonen buruzko informazioa, betiere prestakuntza-erakundeak eskabidean horretarako baimena ematen badu. Edonola ere, erakundeko kooperatiba-kideei eta administratzaileei buruzko dokumentazioa aurkeztu beharko du erakundeak, halakorik balego.

4.– Eskabideak ez baditu baldintza guztiak betetzen, interesdunari jakinaraziko zaio 10 egun balioduneko epea duela, jakinarazpena jaso eta hurrengo egunean zenbatzen hasita, izandako hutsune edo akatsa konpontzeko, edo aurkeztu beharreko dokumentuak aurkezteko. Hori egingo ez balu, eskaerari uko egiten diola ulertuko da, horretarako beharrezkoa den ebazpena eman eta gero.

5.– Dirulaguntzarako eskabideak aurkezteko epea deialdi hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean hasiko da eta 2019ko irailaren 6an bukatuko da.

7. artikulua.– Prozedura eta ebazpena.

1.– Enplegurako Prestakuntzako eta Diru-sarrerak Bermatzeko zuzendariak du prozedura izapidetzeko eskumena, eta Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiak, berriz, ebaztekoa.

2.– Dirulaguntzak emateko prozedura norgehiagoka-prozedura izango da, eta egintza bakarrean ebatziko dira prestakuntza-proiektuak gauzatzeko aurkeztutako eskabide guztiak. Banaka baloratuko da ibilbide bakoitza.

3.– Eskabideak aztertzeko eta horien balorazioa egiteko batzorde bat osatuko da, izaera teknikoa. Lanbideko Enplegurako Prestakuntzako eta Diru-sarrerak Bermatzeko Zuzendaritzako Enplegurako Lanbide Heziketako Zerbitzuaren arduradunak eta Enplegurako Lanbide Heziketako Zerbitzuko hiru teknikaririk osatuko dute batzorde hori.

4.– Eskabideek deialdian parte hartzeko eskatutako baldintzak betetzen dituztela egiaztatu ondoren, ebaluazio-batzordeak balioetsiko ditu 9. artikuluan ezarritako irizpideei jarraituz, eta behin-behineko ebazpenaren proposamena egingo du, behin-behinean onartzea zein baztertzea proposatutako ekintzak zehaztuta. Hori Lanbideren web-orrian (www.lanbide.euskadi.eus) argitaratuko da, eta 10 egun balioduneko epea emango da erakunde interesdunek, LAN-F aplikazio informatikoaren bidez, alegazioak egiteko edo eskabideari uko egiteko, behin behinean onartutako prestakuntza-ekintza guztiei edo batzuei dagokienez.

Behin-behineko ebazpenaren proposamenak ez du onuradun gisa proposatutako erakundeen aldeko inolako eskubiderik sortzen.

5.– Alegazioak aztertu ondoren, ebaluazio-batzordeak behin betiko ebazpen-proposamena prestatuko du eta Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiari helaraziko dio, hori baita ebazpena egiteko organo eskuduna.

6.– Ebazpenean emango diren dirulaguntzak jasoko dira, prestakuntza-ekintzen baloraziotik ondorioztatzen den lehentasun-hurrenkeran, eta dirulaguntzaren zenbatekoa, onartutako prestakuntza-ekintzak zein ukatutakoak eta uko egiteko arrazoiak ere zehaztuko dira. Ebazpenak prestakuntza-erakunde interesdunei jakinaraziko zaizkie Lanbideren web-orrian argitaratuz: www.lanbide.euskadi.eus

7.– Ebazpena eman eta jakinarazteko gehieneko epea lau hilabetekoa da, eskaerak aurkezteko lehen egunetik zenbatuta. Epe hori igaro ondoren ebazpen espresurik jakinarazten ez bada, eska-bidea ezetsizat jo ahal izango da.

8.– Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiaren ebazpenek amaitu egiten dute administrazio-bidea eta horien aurka aukerako berraztertze-errekurtsoa jarri ahal izango da Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiaren aurrean, hilabeteko epean, jakinarazpena egin eta hurrengo egunean zenbatzen hasita, edo, bestela, zuzenean administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango da Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzien Epaitegian, bi hilabeteko epean, jakinarazpena egin eta hurrengo egunean zenbatzen hasita.

9.– Dirulaguntzak emateko Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiaren ebazpenean berariaz espresuki aipatu beharko da, hala badagokio, EGFren finantzaketa, Gazteen Enpleguaren 2014-2020 Programa Operatiboaren barruan.

10.– Publikotasunaren printzipioa betetzeko, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiaren ebazpenaz Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian emango da jakitera zer enpresak jaso duten dirulaguntza deialdi honen babesean eta zenbateko laguntza jaso duten eta espresuki aipatuko da EGFen finantzaketa, Gazteen Enpleguaren 2014-2020 Programa Operatiboaren barruan.

8. artikulua.– Laguntza zehaztea.

1.– Eskabideak aurkezteko eta akatsak 6. artikuluan ezarritako eran zuzentzeko epea amaitutakoan, prestakuntza-proiektuen balorazio teknikoa egingo da, eskabideak eta aurkeztutako ekintzak puntuazio handiena izan dutenetik txikiena izan dutenera antolatzeko.

2.– Prestakuntza-proiektu bakoitzari eman beharreko dirulaguntzaren zenbatekoa zehazteko, 5.2 artikuluan erreferentziatutako modulua erabiliko da.

3.– Deialdi hau finantzatzera bideratutako zuzkidura ekonomiko osoa ez bada aski prestakuntza-proiektu guztiak aurreko zenbakiari jarraikiz diruz laguntzeko, balorazio-fasean prestakuntza-ibilbideek lortu duten lehentasun-hurrenkerari jarraikiz emango dira dirulaguntzak.

9. artikulua.– Eskabideak balioesteko irizpideak.

1.– Eskatutako prestakuntza-ibilbideak baloratzeko, honako irizpide hauek hartuko dira kontuan (V. eranskinean zehaztuta daude):

Irizpide guztiak prestakuntza-erakundearen mailan aintzat hartzen dira, hau da, IFK bera duten prestakuntza-zentroen datuak batera aztertzen dira.

A) 2019-2020 ikasturtean prestakuntza-zikloak emateko itundutako erakundeak:

– Oinarrizko mailakoak: 5 puntu.

– Erdi mailakoak: 5 puntu.

B) Hezkuntza Sailak Helduen Hezkuntza Iraunkorra emateko baimena duen unibertsitatez kanpoko zentro pribatua edo publikoa izan behar du: 10 puntu.

C) 2018-2019 ikasturtean, Hezkuntza Sailarekin, Oinarrizko Lanbide Heziketa egin duten ikasleak: gehienez 20 puntu.

D) Prestakuntza-erakundeen Gizarte Erantzukizuna. 20 puntu gehienez.

1) Lana sortzeko konpromisoa: gehienez 5 puntu.

2018ko urtarrilaren 1etik 2018ko abenduaren 31ra, enpresaren kotizazio-kontuetako kode guztietan altan dauden langileen batez bestekoa hartuko da aintzat.

Irizpide hau aintzat hartu ahal izateko, erakunde eskatzaileak 6. artikuluko 3.2.c) apartatuan aipatutako egiaztagiria aurkeztu beharko du.

2) Lanaren kalitatearekiko konpromisoa: gehienez 5 puntu.

D.1 atalean zehaztutako batez besteko langileetatik, 2018ko abenduaren 31n lanaldi osoan eta mugagabeko kontratuarekin diharduten pertsonen ehunekoa hartuko da aintzat.

Irizpide hau aintzat hartu ahal izateko, erakunde eskatzaileak 6. artikuluko 3.2.d) apartatuan aipatutako egiaztagiria aurkeztu beharko du.

Puntuazioa lortzeko, honako formula hau aplikatuko da:

Lan-kontratuaren kodea duten pertsona kopurua, Gizarte Segurantzako Diruzaintza Nagusiaren erreferentziaren arabera $(100 + 109 + 130 + 139 + 150 + 189 + \text{kontratu mugagabearekin lanaldi osoan dauden bazkide kooperatibistak} + \text{administratzaileak}) / \text{plantillaren batez bestekoa (D.1)}$.

3) Genero-berdintasunarekiko konpromisoa: gehienez 5 puntu.

2018ko plantillan, kontratu mugagabearekin lanaldi osoan dauden emakumeen ehunekoa hartuko da aintzat, baldintza beretan dauden gizonen kopuruarekin alderatuta.

Irizpide hau aintzat hartu ahal izateko, erakunde eskatzaileak 6. artikuluko 3.2.d) apartatuan aipatutako egiaztagiria aurkeztu beharko du.

Puntuazioa lortzeko, honako formula hau aplikatuko da:

Lan-kontratuaren kodea duten emakume kopurua, Gizarte Segurantzako Diruzaintza Nagusiaren erreferentziaren arabera $(100 + 109 + 130 + 139 + 150 + 189 + \text{aldi baterakoa ez den kontratuarekin lanaldi osoan dauden bazkide kooperatibistak} + \text{administratzaileak}) / \text{lan-kontratuaren kodea duten gizonen kopurua} (100 + 109 + 130 + 139 + 150 + 189 + \text{aldi baterakoa ez den kontratuarekin lanaldi osoan dauden bazkide kooperatibistak} + \text{administratzaileak})$.

4) Desgaitasuna duten pertsonentzako aukera-berdintasunarekiko konpromisoa: gehienez 5 puntu.

2018ko plantillan kontratu mugagabearen diharduten eta desgaitasunen bat duten pertsonen kopurua hartuko da aintzat.

Irizpide hau aintzat hartu ahal izateko, erakunde eskatzaileak 6. artikuluko 3.2.d) apartatuan aipatutako egiaztagiria aurkeztu beharko du.

Puntuazioa lortzeko, honako formula hau aplikatuko da:

Lan-kontratuaren kodea duten pertsonen kopurua, Gizarte Segurantzako Diruzaintza Nagusiaren erreferentziaren arabera (130 + 139 + 230 + 239 + 330 + 339 + aldi baterako kontratua ez duten bazkide kooperatibistak + aitortutako desgaitasunen bat duten administratzaileak).

E) 2017ko ekitaldian langabeentzako enplegurako lanbide-heziketari buruzko laguntzen deialdietako prestakuntzaren kalitatearen eta inpaktuaren adierazleak, 2017ko apirilaren 27ko Ebazpenaren bidez onartutako 2017ko ohiko deialdiaren arabera (lehentasunez langabeei zuzendutako prestakuntza-ekintzetarako dirulaguntzena –EHAA, 2016ko ekainaren 16koa–). Gehieneko puntuazioa: 20 puntu.

Horren xedea da 2017ko ekitaldian enplegurako lanbide-heziketaren arloan eskumena zuten Administrazioek onartu dituzten deialdietan, langabeei zuzendutako prestakuntza-ekintzak ematean lortu zuten kalitatea balioestea, bai eta haien eragina ere, enplegarritasunari eta laneratzeari dagokienez.

1) Sintesi-adierazlea: gehienez 10 puntu.

Aurrez aipatutako deialdietan emandako prestakuntza-ekintzetan, prestakuntza-erakunde batek lanbide-arlo bakoitzean lortutako asebetetze-tasen batez bestekoa, dirulaguntza eskatzen den espezialitate berberei dagokienean (I. eta II. eranskinetan jasotzen dira).

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak onartutako deialdiari dagokionez, adierazle hori bere datu-basetik ateratzen da, ofizioz. Ez dira aintzat hartuko kontratazio-konpromisoa duten prestakuntzako dirulaguntzen ildoei dagozkien emaitzak, ezta Proiektu Bereziei dagozkienak ere.

Beste administrazio publiko batzuen dirulaguntzen deialdiei dagokienez, erakunde eskatzaileak III. eranskinean aipatutako egiaztatgia aurkeztu beharko du.

Prestakuntza-erakunde jakin batek Lanbideren deialdian parte hartu ez badu eta beste administrazio publikoen egiaztatgia aurkezten ez badu, 4 puntu emango zaizkio.

Adierazle hori lortu ezin izanaren kausa Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuari egozten bazaio, berriz, dagokion lanbide-arloaren adierazleen batez bestekoa hartuko da sintesi-adierazle gisara.

2) Enplegarritasun-indizea: gehienez 10 puntu.

Deialdi horretan prestakuntza-ekintzak eman ezean, 8 puntu emango dira.

Kontuan hartu da 2017ko apirilaren 27ko Ebazpenaren bidez onartu zen 2017ko ohiko deialdian (EHAA, 2016ko ekainaren 16koa), lehentasunez langabeei zuzendutako prestakuntza-ekintzentzako dirulaguntzei buruzkoan, lanbide-arloen prestakuntza-ekintzek lortutako enplegarritasun-indizearen batez bestekoa. Hau da, dirulaguntza eskatutako ibilbide bakoitzean jasotako lanbide-arlo berei dagozkien kontratazio-konpromisoei eta proiektu bereziei buruzko ekintzak ez dira aintzat hartuko (I. eranskinean jasota daude).

Adierazitako deialdian parte hartu zuten erakundeek ez dute datua jakinarazi beharko, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak jada baduelako. Horretan parte hartu ezean, IV. eranskinean jasotako ziurtagiria aurkeztuko dute.

F) Lanbide-arloko prestakuntza-emaila gisako esperientzia, lehentasunez langile langabetuei eskainitako prestakuntzarako laguntzen deialdietan, azken hiru urteetan. Lerro arrunteko esperientzia baino ez da kontuan hartuko, eta ez, ordea, kontratazio-konpromisokoa edo proiektu berezi edo espezifikoetarako dagokiena. 20 puntu gehienez.

Bi lanbide-arlo dituzten ibilbideetan bi arloetako esperientziaren batez bestekoa kalkulatu da.

2.– Berdinketa dagoenean, lehentasuna izango du E balorazio-irizpidean puntu gehien duen eskaerak. Berdinketa, halere, hautsi ezean, lehentasuna izango du D balorazio-irizpidean puntu gehien duenak. Eta C balorazio-irizpidean puntu gehien izatea izango da berdinketa hausteko azken irizpidea.

10. artikulua.– Prestakuntza-ekintzetan parte hartuko duten pertsonen hautaketa.

1.– Prestakuntza-ekintzetan parte hartuko duten pertsonen aurretiko hautaketa bat egingo du Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak, ikastaroetan parte hartzeko hautagaien artean.

Hautagaiek honela parte hartu dezakete ikastaroan:

a) Ikastaroan parte hartzea eskatuz, bai Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren sareko bulegoren batean eskaera bat aurkeztuta, bai eskaera organismo autonomo honen webgunean beteta (www.lanbide.euskadi.eus). Prestakuntza-ekintzak, haietan izena emateko epea eta eskatzaileek bete behar dituzten sarbide-baldintzak adieraziko dira webgunean, bai eta prestakuntza-ekintza bakoitzaren xehetasunak eta ezaugarriak ere.

b) Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko Orientazio Zerbitzuek ikastaroa egitea agin diezaiekete Lanbiden izena emanda daudenei, haien prestakuntza-ibilbidearen barruan eta/edo Gazte Bermerako Sistema Nazionalaren Fitxategian izena emanda daudenak.

c) Lanbidek bertan izena emanda daudenak deitu ditzake profesionaltasun-ziurtagiri bat osatzeko faltan dituzten prestakuntza-moduluez osatutako prestakuntza-ekintza bat egiteko.

d) Enplegu Zerbitzu Publikoan izena eman duten pertsonak.

2.– Ikastaroetan parte hartzen duten ikasleen azken hautaketa enpresa edo erakunde onuradunak egingo du, Lanbidek igorritako hautagaien artean. Horretarako, prestakuntza emango duen erakundeak sarbidea izango du inskribatutako hautagaien datuetarako Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren prestakuntza-kudeaketarako aplikazioaren bidez (LAN-F). Erakundeak prestakuntza-ekintzak hasi aurretik eta dagozkion bermeekin egingo du hautaketa-prozesua.

Behar duten prestakuntza-ekintza guztietan, hautapropa bat ere egingo dute, bere instalazioetan, Lanbideko teknikariek aurrez adostuta, ekintza behar bezala aprobetxatzen dela ziurtatzeko eta kualifikazio-ekintzen helburuak lortzeko ezinbestekoak diren aurretiazko ezagutza-maila erreala zehazteko. Proba hori LAN-F aplikazioaren dagokion atalean erantsiko da.

3.– Nahikoa emakume aritzen ez diren jarduera-arloei lotutako profesionaltasun-ziurtagirietan, lehentasuna izango dute emakumeek. Horri dagokionez, honako ibilbide hauek izango dute lehentasuna:

BIZKAIKO ESKAINTZA

2. Zura.

3. Elektrizitatea + Mekanizatua.

4. Iturgintza + Elektrizitatea.

6. Ibilgailuak.

GIPUZKOAKO ESKAINTZA

2. Elektrizitatea + Mekanizatua.
3. Iturgintza + Elektrizitatea.
4. Elektrizitatea + elektronika.

ARABAKO ESKAINTZA

1. Elektrizitatea + Mekanizatua.
2. Ibilgailuak.

4.– Prestakuntza-modulu bat amaitzen denean plaza hutsak badaude, dela baten batek bertan behera utzi duelako, dela hasierako hautapenean plaza guztiak bete ez dituztelako, beste partaide batzuk sartu ahal izango dira, erreserba-zerrendatik edo hautaketa-prozesu berri batetik aterata.

5.– Hautaketa bukatu ondoren, erakunde onuradunek hautaketaren emaitza jakinaraziko diote Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuari, LAN-F kudeaketarako aplikazio informatikoaren bidez, eta Lanbideek berariaz emandako jarraibideak aintzat hartuz.

6.– Hautatuak izan direnen eta ikastaroetan parte hartzeko erreserba-egoeran gelditzen direnen zerrendak erakutsi behar dituzte prestakuntza-entitateek beren instalazioetan, prestakuntza-ekintzak abiarazi baino 24 ordu lehenago gutxienez eta hautagaiei aldez aurretik adierazi zaien leku batean.

Horren kalterik gabe, prestakuntza-zentroek egoki iritzitako bestelako bitartekoak erabili ahal izango dituzte ikasleei ikastaroetan parte hartuko dutela jakinarazteko.

11. artikulua.– Prestakuntza-ekintzetan parte hartuko duten pertsonen eskubideak eta betebeharrak.

1.– Prestakuntza-ekintzak doakoak dira ikasleentzat eta Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak diruz lagunduko ditu.

2.– Eusko Jaurlaritzak sinatutako istripu eta erantzukizun zibileko polizak barne hartzen ditu ikasleak ikastaroetara joateagatik eta prestakuntza ematen den lekurako joan-etorrietatik eratorritako arriskuak.

3.– Klaseko lehen egunean ikastaroaren egutegia, prestakuntza-ekintzaren programa eta ikasleen eskubide eta betebeharren dokumentua jasoko dute ikasleek, eta dokumentu hori sinatuko dute.

4.– Ikasleek modu jarraituan joan beharko dute eskoletara, eta prestakuntza-ekintzei probetxua atera beharko diete. Hori bermatzeko, erakunde onuradunak eguneroko bertaratze-partea egin beharko du, eta irakasleak eta parte-hartzaileak sinatu beharko dute. Eguneroko partea bereizita egingo da prestakuntza-modulu bakoitzerako.

5.– Ikasleek ezin izango dute ikastaro batean baja eman beste prestakuntza-ekintza bat has-teko. Ezin izango dute ekintza amaitu baino lehen utzi, kasu hauetan izan ezik: enplegua aurkitzea eta hori eragozpen bada prestakuntza-ekintzara joan eta etekina ateratzeko; edo, bestela, egoera pertsonal edo familiar larrian egotea, behar bezala justifikatuz gero.

12. artikulua.– Ikasleak baztertzeko arrazoiak eta prozedura.

1.– Ikasleak baztertzeko arrazoi izango da ekintza ez aprobetxatzea edo hori ondo garatzea eragozteko moduko portaera, baita higienearen eta osasungarritasunaren arauak ez betetzea ere.

2.– Ikasleak baztertzeko prozedura hau izango da:

Prestakuntza-zentroak Lanbideko prestakuntzako teknikariari jakinaraziko dio baztertzeko arrazoietako bat gertatu dela, horretarako ezarri den eredia erabiliz. Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak arrazoi hori aztertuko du. Horren ostean, Enplegurako Prestakuntzako eta Diru-sarreak Bermatzeko zuzendariak baztertzeko prozedura hasteari buruzko erabakia hartuko du. Ikaslea baztertzeko proposamenaren arrazoa azalduko da erabaki horretan, eta ikasleak bost egun naturaleko epea izango du alegazioak aurkezteko. Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiak ebatziko du prozedura, gehenez hamabost eguneko epean. Egoerak hala eskatzen badu, prestakuntza-jardueraren jarraipen egokia bermatzeko behin-behineko neurriak har daitezke baztertzeko prozedurari ekiteko erabakian. Neurri horietako bat izan daiteke ikaslea behin-behineko izaeraz baztertzeko ikastarotik, prozedura abiatzeko erabakia jakinarazten zaionetik prozedura ebatzen den bitartean. Ebazpenean adieraziko da zein errekurtso aurkez daitekeen.

13. artikulua.– Prestakuntza-ekintzak gauzatzea eta lortutako konpetentziak egiaztatzea.

1.– Dirulaguntzaren enpresa edo erakunde onuradunak deialdi honetan ezarritakoaren arabera eta Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuak emandako ereduak aintzat hartuta gauzatu beharko ditu prestakuntza-ibilbideetan jasotako prestakuntza-ekintzak. Organismo autonomo honen prestakuntzarako informatika-aplikazioa (LAN-F) erabiliko du prestakuntzaren hasiera jakinarazteko (hasiko den eguna baino 7 egun lehenago gutxienez), bai eta gerora izan daitekeen edozein aldaketaren, prestakuntza-ekintzak bukatzearen eta parte-hartzaileen bertaratzea kontrolatzearen berri emateko ere. Oro har, aurkako jarraibiderik ematen ez bada, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuari egin beharreko jakinarazpenak zazpi egun naturaleko epean egin beharko zaizkio. Prestakuntza-ekintzak ezingo dira hasi alde aurretik Lanbidek ez badu LAN-F aplikazioan Hasierako Komunikazioa baimendu.

2.– Profesionaltasun-ziurtagiriak bereiz gauzatzen direnean, honako baldintza hauek bete beharko dira:

– Modulu bakoitza modu indibidualean egin eta justifikatuko da.

– Moduluak profesionaltasun-ziurtagirian ezarritako ordenan eman beharko dira.

– Hori hasten duten pertsonen modulu guztietan parte hartzea bermatu behar zaie, prestakuntza-ibilbide osoa osatu ahal izateko.

3.– Deialdi honetan profesionaltasun-ziurtagiriko modulueterako prestakuntza ematen duten prestatzaileak Lanbidek egiaztatu beharko ditu. Era berean, prestatzaileen fitxategian sartu beharko dituzte, profesionaltasun-ziurtagiri bakoitzean ezarritako baldintzei jarraituz.

4.– Dirulaguntza jasotzen duten ikasleek gain, beste bi joan daitezke prestakuntza-ekintzara, dirulaguntza jasotzeko eskubiderik gabe, deialdiaren ebazpenaren ondorengo hamabost egunen barruan hartarako eskabidea egiten duten prestakuntza-erakundeetan, betiere instalazioak eta ekipoak badituzte eta ikasle guztientzat bermatzen badira berdintasun-baldintzak. Erabilgarri diren instalazioak eta ekipoak egiaztatutakoan emango da baimena; profesionaltasun-ziurtagirien kasuan, eskatutako parte-hartzaileen kopurua ere egiaztatuko da.

5.– Gazte langabeek ezingo dute prestakuntza-ekintzetan egunean 8 ordu baino gehiagoz parte hartu. Nolanahi ere, asteko ordu kopurua ezin izango da 40 baino handiagoa. Muga horietan sartuko dira, hala dagokienean, profesionaltasun-ziurtagiri bakoitzari dagozkion lantokiko prestakuntza praktikoaren moduluko orduak.

6.– Prestakuntza-erakundeak prestakuntza-ekintzak arrazoizko ordutegietan programatzen saiatu beharko dira, bereziki gizatalde kalteberei zuzendutakoak. Prestakuntza eta ikasleen bizitza pertsonala uztartzeko moduko ordutegiak ezartzen saiatu beharko dira.

Prestakuntza-ekintza hasitakoan, behar bezala emango da, eta ezingo da aldi baterako eten, ezinbesteko kasuan izan ezik, behar bezala justifikatuta eta Lanbidek alde aurretik onartuta.

7.– Erakunde onuradunek honako hauek emango dizkiete, gutxienez, parte-hartzaile guztiei prestakuntza-ekintzetan:

– Espezialitatearen eduki guztiak biltzen dituen eskuliburu bat, editatua edo euskarri informatiko batean.

– Ikastaroa behar bezala garatzeko beharrezkoa den idazmahaiko materiala eta.

– Behar diren babes-elementuak.

Era berean, zer eskubide eta betebeharrak dituzten azalduko diete ikasleei, bai eta 11. eta 12. artikuluetan araututako kanporatzeko arrazoiak eta prozedurak ere.

8.– Ikasle batzuek jarduera bertan behera uzten badute, beste ikasle batzuk sartu ahalko dira prestakuntzara haien orde. Ordezkapen hori lehen bost irakastegunetan bakarrik onartuko da, ibilbideko prestakuntza-modulu bakoitza hasten denetik aurrera zenbatzen hasita.

9.– Prestakuntza emateaz arduratzen diren erakunde onuradunek berehala jakinarazi beharko diote Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuari prestakuntza-ekintzetan parte hartzen dutenek horiei uko egiten badiete, horietara aurkezten ez badira edo ekintzak bertan behera uzten badituzte, horren zergatia adierazita.

10.– Tutoretza eta orientazio pertsonala.

Ikasleen tutoretza pertsonak behar duen hezkuntza integralera bideraturik egingo da.

Tutoretza-lanak partekatu beharko dituzte programaren irakasle guztiek. Irakasle-taldeak tutore-ekintzen plana osatuko du, gutxienez, honako alderdi hauek jasota:

a) Ikasleen autoestimua indartzea.

b) Pertsona arteko harremanak eta gizarte-trebetasunak.

c) Harreman programatua familiarekin edo legezko tutoreekin.

d) Banakako eta taldekako ikaskuntza-prozesua gidatzea eta laguntzea.

e) Ikasleei lanbide-ibilbidea jarraitzeko orientabideak eta laguntza ematea prestakuntza-aldia amaitu ondoren, dela laneratzearen bidez, dela kualifikazio handiagoko mailetako prestakuntza-ren bitartez.

Ikasle-taldeek, gutxienez, irakasle bana izango dute, tutoretzaz eta tutore-ekintzen plana gauzatzeko koordinazioaz arduratuko dena. Bloke bakoitzean, egiteko hori ikasturte horretan eskolak

ematen dituen irakasleren baten esku egongo da eta, ahal dela, bi blokeetan pertsona bera izango da tutoretza-lanak egingo dituen.

Tutoreak eredu izan behar du ikaslearentzat, irakasle taldearentzat eta familientzat. Jarduteko orientazioa emango du, irakasle-taldearekin batera, ikasleek estrategia metodologiko eta anto-laketa-estrategiak eskuratu eta ahalmen pertsonal eta profesional eta autoikaskuntza-gaitasun hobeak izan ditzaten.

Ikasleen premiak direla-eta hala behar bada, esku-hartze psikopedagogiko eta/edo hezkuntza eta gizarte-laneko adituek esku hartuko dute.

11.– Ikasleen ebaluazioa moduluka egingo da, ikasketaren emaitzak egiaztatzeko eta, horren bidez, lanerako konpetentziez jabetu dela bermatzeko.

Ebaluazioa ikasleen premietara eta bilakaerara egokituta egongo da, batez ere, desgaitasunen bat dutenen kasuan; irisgarritasun-neurriak ezarriko dira, ebaluazio-proban parte hartetik ez baztertzea bermatzeko.

Ebaluazioa sistematikoki garatuko da, aldez aurreko plangintza bati egokituta, eta bertan jasoko dira, gutxienez, modulu bakoitzerako, hura egiteko aurreikusitako egunen aurreikuspena, zein tokitan burutuko den, erabiliko diren ebaluazio-tresnak eta horien aplikazioak emango duen denbora (LAN-F aplikazioan emandako ereduaren arabera). Ebaluazio-tresna horiek eta parte-hartzaile bakoitzak egindako probak eskaneatu egingo dira eta aplikazioan gordeko dira.

Prestakuntza-moduluetan egiaztatu beharreko ikaskuntzaren emaitzak haien konpetentzietan eta ebaluazio-irizpideen jasotako ezaguerei eta trebetasun praktikei dagozkienak izango dira; horrela, osotasunean, konpetentzia profesionalak eskuratu direla egiaztatu ahalgo dute.

Konpetentzia-unitateen egiaztapena jasotzeko, emaitza positiboarekin gainditu beharko dituzte haiekin lotutako prestakuntza-moduluak, «gai» diren adierazita.

Prestatzaileek dokumentu bidez islatuko dituzte txosten batean prestakuntza-modulu bakoitzaren ebaluazioan ikasleek lorturiko emaitzak, eta bertan bilduko da aplikaturiko ebaluazio-tresnetan ikasle bakoitzak izandako jarduna, egindako zuzenketekin eta horietan lorturiko puntuazioekin (LAN-F aplikazioan emandako ereduaren arabera).

Modulua eman eta gero, ebaluazio-akta bete beharko da LAN-F informatika-aplikazioaren bidez, parte-hartzaile bakoitzak lortutako emaitzarekin: «gai», «gai, ez egiaztagarria» o «ez gai».

Lantokiko prestakuntza praktikoko modulua egiten den bitarteko ikasleen jarraipena eta ebaluazioa batera egingo dute prestakuntza-zentroak eta enpresak hautaturiko tutoreek. Modulu hori gainditzen duten ikasleek ziurtagiri bat jasoko dute LAN-F aplikazioaren bitartez.

Ikastaroa amaitzerakoan, gainditutako prestakuntza-moduluei dagokien Egiaztapen Partzial Metagarria (EPM) emango zaie, eta, ikasleak profesionaltasun-agiria osatu badu, hori emateko prozedura abiaraziko da.

Ikasleak emaitza negatiboekin bukatzen badu ikastaroa, bertaratze-ziurtagiri bat emango zaio eta, dagokionean, gainditu dituen prestakuntza-moduluen egiaztapen partzial metagarriak edo prestakuntza-modulu baten barruan zer prestakuntza-unitate gainditu dituen zehazten duen ziurtagiria.

Zentroak honako datu edo dokumentu hauek aurkeztu beharko ditu Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuaren LAN-F informatika-aplikazioaren bidez:

– Ikastaldia hasi aurreko 7 egun baliouduneko epearen barruan:

- Ebaluazioaren plangintza, Lanbidek ezarritako ereduaren arabera (LAN-F informatika-aplikazioaren bitartez eskainiko da).

- Erabili beharreko ebaluazio-tresnak, horiek zuzentzeko eta puntuatzeko dagozkien euskarriekin.

– Ikastaroa bukatu ondoko 7 lanegunen barruan:

- Ikasleen emaitzak biltzen dituen online dokumentazioa LAN-F aplikazioan, Lanbidek ezarritako ereduaren arabera (LAN-F informatika-aplikazioaren bitartez jarriko da eredu hori onuradunen esku).

- Ebaluazio-aktak betetzea.

12.– Dirulaguntzen prestakuntza-erakunde onuradunek zuzenean gauzatuko dituzte prestakuntza-ekintzak, eta ezingo dute hirugarrenik azpikontratatu horretarako. Horri begira, ordea, dirulaguntza jaso duen prestakuntza-ekintza emateko irakasleak kontratatzea ez da azpikontratatziozat hartuko. Irakasleak kontratatzea pertsona fisikoak kontratatzea soilik dela ulertzen da.

Nolanahi ere, 12. apartatuan aurreikusita ez dagoenari dagokionez, zuzenean aplikatu beharko da Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 29. artikuluan xedatutakoa.

14. artikulua.– Lantokiko lanbide-praktiken modulua.

1.– Praktiken iraupena eta edukia bat etorriko dira lan-zentroko prestakuntza-modulu praktikoa-ekin, dagokion profesionaltasun-ziurtagiria arautzen dituen Errege Dekretuaren II. eranskinean ezarritakoaren arabera.

2.– Prestakuntza-erakundeek lan-zentroko prestakuntza-modulu praktikoa egitea aurreikusi beharko dute, ikasten ari diren moduluarekin lotutako lanetan, ikastaroetan parte hartzen duten ikasle guztientzat, salbu eta ikasleren bat urtarrilaren 18ko 34/2008 Errege Dekretuak (Profesionaltasun Ziurtagiriak arautzen dituen) 5 bis artikuluan xedatzen dituen salbuesteko egoera batean ez badago.

3.– Lehentasunez, lanbide-praktikak gainerako prestakuntza-moduluak bukatutakoan egingo dira, aurrekoak emaitza positiboarekin gainditu badira, betiere; horrela, azken prestakuntza-modulua bukatu eta lau hilabeteko gehieneko epean hasi behar dira lanbide-praktikak. Epe hori 3.4 artikulua dioenaren arabera baldintzatuta egongo da.

Salbuespenez eta justifikatuta baldin badago, Lanbidek baimena eman ahal izango du lanbide-praktikak gainerako prestakuntza-moduluekin batera egin ahal izateko. Prestakuntza-ekintza emaitza positiboekin gainditu duten ikasle guztiek egin ahal izango dute prestakuntza praktikoko prestakuntza lan-zentroan, haien administrazio-egoera edozein izanda ere.

4.– Prestakuntza-ekintza egiten ari diren bitartean praktikak hasten dituzten ikasleek, azken ebaluazioaren emaitza negatiboa bada, praktikak egiten jarraitu ahal izango dute. Prestakuntza-ekintza uzteak, berriz, berari atxikitako lanez kanpoko lanbide-praktika amaitzea ekarriko du.

5.– Lanez kanpoko praktikak enpresen eta prestakuntza-erakundeen artean sinatutako hitzarmenen edo akordioen bidez arautuko dira. Praktikak hasi baino lehen, akordio horren berri eman beharko zaie enpresako langileen legezko ordezkariari. Baldintza hori bete den ziurtatzeko, langileen legezko ordezkariak hitzarmenari buruzko informazioa jaso dutela adierazteko agiria erantsi

beharko da (eredu ofiziala erabili beharko da horretarako, LAN-F aplikaziotik hartuta). Gainera, parte hartzen duten ikasleen zerrenda bat ere erantsi beharko da.

6.– Praktikak Euskal Autonomia Erkidegoko lan-zentroetan egin beharko dira, hori eragozten duten eta behar bezala justifikatutako arrazoiak daudenean izan ezik. Hori Enplegurako Prestakuntzako eta Diru-sarrerak Bermatzeko zuzendariak baimendu behar du alde aurretik.

7.– Praktiken eguneko lanaldia ezin izango da 8 orduetik gorakoa izan.

8.– Lanbidek praktiken hitzarmena baliozkotzea ezinbesteko baldintza da, eta hori lan-zentroetako prestakuntza-modulua hasi aurretik egin beharko da. Hori betetzen ez bada, nahitaezko baimena ez duten praktikak baliogabetu ahalko dira. Horregatik, zentroek sinatutako praktiketako hitzarmena formalizatu eta erantsi beharko dute LAN-F aplikaziora, gutxienez praktikak hasi baino 7 egun lehenago.

15. artikulua.– Prestakuntza-ekintzen jarraipena eta kontrola.

1.– Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak, prestakuntza ematen duen zentroarekin lankidetzan, prestakuntza-ekintzen jarraipena eta kontrola egingo ditu. Hori eskakizunak eta alderdi formalak betetzen direla egiaztatzeaz eta prestakuntzaren emaitzez haratago doan lana da, eta kalitatea bermatzeko balio izango du. Horretarako, prestakuntza-ekintzak garatzen diren zentroa bisitatu du eta idazki bidez jaso beharko du dirulaguntza onartzeko ezarritako baldintzak betetzeko beharra mantentzen dela (instalazioak, kide kopurua eta ekipamendua, baliabide didaktikoak, irakasleak...) edo, hala badagokio, zer-nolako irregulartasunak hauteman dituen, ongi zehaztuta, arazoak konpon ditzaten.

2.– Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzua ikastarora bi bisita egiten ahaleginduko da, gutxienez:

– Hasieran. Ikastaroa emango duen zentroko baldintzak egiaztatuko ditu bisita honetan, ikastaroaren eta bere edukien eta garapenaren inguruko datu guztien berri emango die ikasleei, baita beren eskubide eta betebeharren berri ere, eta zalantza eta kontsulta guztiak artatuko ditu. Egiaztatuko du, orobat, Lanbideren finantzazioak ekarritako komunikazioak betetzen direla.

– Ikastaroa amaitzean: zentroko baldintzak egiaztatuko ditu, ikasleei amaierako inkesta pasako die eta ikastaroaren balorazio orokorra eskatuko die. Ikasleei orientazioa emango die jasotako prestakuntzak ematen dizkien aukerei buruz eta une horretan dituzten prestakuntza-ibilbideei edo enplegu/prestakuntzako beste ekintza batzuei buruz, lan-merkatura errazago sar daitezten.

3.– Europar Batasuneko araudian ezarritakoarekin bat eginez, bisitak egingo dira Europako Gizarte Funtsak kofinantzatutako prestakuntza-ekintza batzuetara (lagina), tokian bertan egiaztatzeke EBko funtsen parte-hartzetik eratorritako baldintzak betetzen direla.

4.– Prestakuntza ematen duen zentroak Lanbidera bidali behar ditu, ikastaroaren lehenengo hilabetea bukatu baino lehen:

– Ikastaroaren funtzionamenduari buruzko txostena, homologazio-baldintzak eta ikastaroaren hasierako komunikazioan adierazitakoa betetzen direla egiaztatzen duena.

– Ikasleei aplikatutako kalitate-inkestak, ikasleek egindako oharrekin batera.

16. artikulua.– Prestakuntza-ekintzen kalitatearen ebaluazioa.

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak deialdi honen babesean emandako prestakuntza-ekintza guztien kalitatea ebaluatuko du, ebaluazio-sistema misto bera baliatuz. Ebaluazio-sistema misto horrek bereizitako bi iturritako informazioa bilduko du:

A) Ikasleek betetako galdetegietatik lortutako batez besteko emaitzak, Enplegurako prestakuntza-ekintzen kalitatea ebaluatzeko galdetegiak argitaratzen dituen Estatuko Enplegu Zerbitzuaren 2009ko apirilaren 27ko Ebazpenean xedatutakoaren arabera (BOE, 2009ko ekainaren 11koa). Galdetegi horiek ikasleek beteko dituzte, telematikoki.

B) Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuko teknikariak prestakuntza-ekintzaren bukaeran egindako bisitaldian emandako puntuak, «Prestakuntza-zentro/erakundeak emandako heziketaren ebaluazioa» ereduzko agiriarekin bat etorrita.

Nolanahi ere, emandako prestakuntza-ekintzen kalitatea ebaluatzeko, sintesi-adierazle bat egin beharko da prestakuntza-erakundeak emandako ekintza bakoitzerako. Sintesi-adierazle hori aipatutako bi informazio-iturrietan lortutako emaitzetatik abiatuta aterako da, formula honi jarraikiz:

$$\text{Sintesi-adierazlea} = A \times 0,6 + B \times 0,4$$

A = ikasleek erantzundako galdetegietan lortutako batez besteko puntuazioa, Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoaren 2009ko apirilaren 27ko Ebazpenak, enplegurako prestakuntza-ekintzen kalitatea ebaluatzeko galdetegiak argitaratzen dituenak, ezarritako moduan.

B = Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko teknikariak LAN-F aplikazioan eskuragarri egongo den ereduaren arabera emandako guztizko puntuazioa.

Hala eta guztiz ere, beste informazio-iturri batzuk ere aintzat hartu ahalko dira, behar badira; adibidez, prestakuntza-zentroein edo -erakundeein edo kanpo-erakundeein agindutako kalitatea ebaluatzeko ekintzetan lortutako emaitzak.

17. artikulua.– Dirulaguntza ordaintzea.

1.– Emandako dirulaguntza hiru zatitan ordainduko da prestakuntza-ibilbide bakoitzeko, era honetan:

a) Lehen ordainketa, 2019ko aurrekontuaren kontura, lehen prestakuntza-blokeari dagokion % 50, lehen prestakuntza-ekintza hasitakoan.

Aurreratutako ordainketa 180.303,63 eurotik gorakoa bada, ziurtagiri bat aurkeztu beharko da alde zuzenetik, EAEko Diruzaintza Nagusian aurreratzen den zenbatekoari dagokion bermea abala edo finantza aurkeztu izanarena. Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak eskura jarriko du abal-eredua.

b) Bigarren ordainketa, 2020ko aurrekontuaren kontura, lehen blokearen dirulaguntzaren likidazioaren zenbatekoa gehi bigarren blokeari emandako dirulaguntzaren % 50, lehen blokea 3.9 artikuluan aurreikusitako epeen barruan likidatutakoan, eta 18. artikuluan aurreikusitakoari jarraikiz justifikatuta.

Aurreratutako ordainketa 180.303,63 eurotik gorakoa bada, ziurtagiri bat aurkeztu beharko da alde zuzenetik, EAEko Diruzaintza Nagusian aurreratzen den zenbatekoari dagokion bermea abala edo finantza aurkeztu izanarena. Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak eskura jarriko du abal-eredua.

c) Hirugarren ordainketa, 2012ko aurrekontuaren kontura, bigarren blokea amaitu eta likidatu ondoren, dagokion dirulaguntzaren gainerakoagatik, bigarren blokeko prestakuntza-ekintza guztiak 3.9 artikuluan aurreikusitako epeen barruan amaitu ondoren eta 18. artikuluan aurreikusitakoari jarraikiz justifikatuta.

2.– Ordainketak egin aurretik, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak egiaztatuko du zerga-obligazioak eta Gizarte Segurantzari dagozkionak beteta daudela.

Erakunde onuradunak berariaz ukatzen badu egiaztapen hori egiteko baimena, baldintza hori egiaztatzen duten ziurtagiri eguneratuak aurkeztu beharko ditu.

18. artikulua.– Dirulaguntzaren justifikazioa eta likidazioa.

1.– Laguntzen likidazioa, prestakuntza-ekintzetan parte hartu duten gazteen eta benetan egin dituzten eskola-orduen arabera egingo da, ezarritako modulu ekonomikoen arabera. Likidazioak ez du inola ere gaindituko hasiera batean onartutako dirulaguntzaren zenbatekoa.

2.– Likidazioa kalkulatzeko orduan, ordaindu beharreko dirulaguntzaren zenbatekoa kalkulatzeko, ez da aintzat hartuko ezarritako epeen barruan dagoen lan-zentroan prestakuntza praktikoko modulua amaitu ez duten ikasleek jasotako prestakuntza, ziurtagiriko gainerako prestakuntza-moduluak gainditu arren. Dagozkien praktikak gainditu ez dituzten ikasleen ehunekoak % 70tik gora dagoen prestakuntza-ekintzei dagokienez ez da zenbatekorik ordainduko.

3.– Likidazioa honela kalkulatu da:

– A modulua 15 ikaslez biderkatuko da –baldin eta prestakuntza hasi zuten ikasleen kopurua 3.10 artikuluan aurreikusitako gutxieneko eta gehieneko muga barruan badago–, eta emandako prestakuntza-orduak.

– Aurrez aipatutako zenbatekoari gehituko zaio B moduluen eta ekintzak dituen ordu kopuruaren arteko biderketaren emaitza, ekintza amaitu duten ikasleen kasuan; eta B moduluen eta prestakuntza-ekintzan parte hartu duten ordu kopuru errearen arteko biderketaren emaitza, ekintza amaitu ez duten ikasleen kasuan. Ekintza bakoitza ikasle kopuru batentzat onartutakoa da, eta kalkulua muga horiek errespetatuz egingo da.

– Aurreko bi eragiketak aplikatuz ateratako balioa % 10 handituko da, zeharkako gastuengatik.

4.– Dirulaguntza jasotzen duen erakundeak prestakuntza-ekintza egin dela justifikatzeko dokumentazio hau aurkeztu beharko du Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuan, LAN-F aplikazio telematikoen bitartez, ekintza amaitu eta 15 eguneko epean:

– Erakunde onuradunaren ziurtagiria, laburpen-koadro batekin. Horretan jaso beharko dira ikasle bakoitzak benetan egindako eskola-orduak eta dagoen zenbatekoa, ezarritako modulu ekonomikoak eta artikulua honetako 1. puntuan aurreikusitako irizpideak aplikatuz lortutakoa.

– Ikasleek sinatutako bertaratze-orriak, egotzitako orduen frogagiri gisa.

Ezarritako epeetan dagozkion agiriak aurkezten ez baditu, eskumenerako organoak 15 eguneko epe luzaezina emango dio onuradunari agiri horiek aurkez dituzan. Azken epe horretan justifikaziorik aurkeztu ezean, itzulketaren prozedura hasiko da.

19. artikulua.– Erakunde onuradunen betebeharrak. Jarraipena eta kontrola.

1.– Onuradunaren betebeharrak izango dira, deialdi honetako artikuluetan ezarritakoez gain, Diru Laguntzei buruzko Lege Orokorraren (azaroaren 17ko 38/2003) 14. eta 46. artikuluetan oro har ezarritakoak, baita Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bateginak (azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren bidez onetsia) 50.2 artikuluan jasotakoak ere.

2.– Bereziki, laguntzen onuradunek egiaztatze- eta kontrol-jarduerak onartu beharko dituzte, zehazki honako erakunde hauek egindakoak: Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak, Ogasun eta

Ekonomia Sailaren Kontrol Ekonomikoko Bulegoak, Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiak; hala, lokal eta instalazioetarako sarbidea errazteaz gainera, prestakuntza-ekintzetako parte-hartzaileekin eta elkarrizketatzea egoki irizten dioten beste edozein pertsonarekin harremanetan jartzen utzi beharko die.

EGIFen kofinantzaketa jasotzen duten prestakuntza-ekintzak EBko araudiak ezarritako egiaz-tapen- eta kontrol-jarduketan mende egongo dira; Enplegu eta Gizarte Segurantzako Ministerioak, Europako Batzordeak eta Europako Kontuen Auzitegiak egingo dituzte.

3.– Kontrol-jarduera horiek onartzeko betebeharrak orokor honen esparruan, onuradunak honako hau bete beharko du:

– Finantzatutako ekimena gauzatzeari edo bideragarria izateari buruzko edozein informazio ematea eta eskatzen zaion jarraipen-dokumentazioa bete eta bidaltzea.

– Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuari jakinaraztea beste erakunde batzuetatik dirulaguntzak edo laguntzak eskatu edo lortu direla, deialdi honetan diruz lagundutako ekintza guztiei edo batzuei eragiten dietenak.

– Diruz lagundutako jardueraren xedea edo nondik norakoa nabarmen aldatzen duen edozein gertaera jakinaraztea, bai eta dirulaguntza emateko orduan kontuan hartutako edozein inguruabarraren aldaketa ere.

4.– Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak, ekintzaren jarraipena egiteaz gain, auditorien eta ikuskaritzen urteko plan bat ezarri ahalko du deialdian ezarritako baldintzak betetzen direla egiaztatzeko eta diruz lagundutako ekintzak benetan zein baldintzatan gauzatu diren aztertzeko.

5.– Halaber, diruz lagungarriak diren gastuek Europako Gizarte Funtsaren hautagarritasun-baldintzak bete ditzaten, prestakuntza-zentroek dirulaguntzarekin lotutako transakzioak identifikatu beharko dituzte, kontabilitate-identifikazio bereizgarri bat edo kontabilitate-kode egoki bat baliatuta.

20. artikulua.– Lanbideren finantzaziotik eratorritako komunikazio-betebeharrak.

1.– Lanbideren finantzazioa jasotzen duten prestakuntza-ekintzen garapenari dagokionez, erakundeek berariaz aipatu beharko dute sortutako material didaktiko eta bestelakoetan Lanbideren zein Europako Gizarte Funtsaren finantzaketa jaso izana, bai eta diruz lagundutako ekintzekin lotutako komunikazio, hedapen eta iragarki guztietan ere.

Halaber, erakunde onuradunen zerrenda argitara emango da Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2013ko abenduaren 17ko 1303/2013 (EB) Erregelamenduaren 115.2 artikuluan aurreikusitako zerrenda publikoan.

2.– Diruz lagundutako jarduketan guztiek bete beharko dituzte, bai eta horietatik eratorritako ekintzek ere, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren Komunikazio Eskuliburuan ezarritako eskakizunak. Eskuliburu hori LAN-F aplikazioaren bidez jarriko da erakunde onuradunen esku.

3.– Betebeharrak horiek betetzen ez badira, uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuak (Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra eta hura garatzen duen Erregelamendua onartzen dituen) 31. artikuluan ezarritakoa aplikatuko da. Era berean, ez-betetzeak dirulaguntza itzultzea ekarri ahalko du, deialdi honen 23. artikuluan xedatzen denaren arabera.

21. artikulua.– Dirulaguntza aldatzea.

Dirulaguntza emateko kontuan hartutako baldintzetan gertatu den aldaketa orok ekarri ahal izango du emandako dirulaguntza aldatzea, deialdi honetan dirulaguntzen onuradun izateko

ezarritako gutxienerako eskakizunak betetzen badira, betiere. Baldintzen aldaketa horren ondorioz behar ez bezala jasotako kopuru osoa edo zati bat itzuli behar bada, hasiera emango zaio itzultzeko prozedurari.

22. artikulua.– Beste dirulaguntza edo laguntza batzuekiko bateragarritasuna.

Deialdi honen xedea diren laguntzak bateragarriak izango dira helburu berberarako jasotako beste edozein dirulaguntza edo laguntzarekin; nolana ere, hainbat finantzaketa-iturritatik jasotako laguntzen zenbateko osoak ezin izango ditu gainditu, diruz lagundutako aldi, diruz lagundutako prestakuntza-ekintzen benetako kostua. Kostu hori gaindituz gero, dirulaguntzaren zenbatekoa murriztuko da.

23. artikulua.– Dirulaguntzak itzultzea.

1.– Ezin izango da eskatu dirulaguntza ordaintzea, eta hala badagokio, jasotako kopuruak erabat edo partzialki itzuliko dira, eta dirulaguntza ordaintzen den unetik aurrera ezarri daitezkeen berandutze-interesak eskatuko dira, dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorren 37. artikuluan, bai eta Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bateginaren (azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren bidez onetsia) 53.1 artikuluan aurreikusten diren kasuetan. Bereziki, honako hauek:

a) Jarduera egin izana eta laguntza ematea edo baliatzea baldintzatzen duten baldintza eta betekizunak bete izana justifikatu beharra ez betetzea.

b) Dirulaguntza lortzea horretarako eskatutako baldintzak bete gabe.

c) Jarraipen- eta kontrol-jardunak ukatzea edo oztopatzea.

d) Diruz lagundutako ekintzak gauzatzeko baldintzei buruz errealitatearekin bat ez datozen datu faltsuak ematea.

e) Deialdi honen 20. artikuluan jasotako komunikazio- eta hedapen-betebeharrak ez betetzea.

f) Deialdi honetan zehaztutako beste edozein betebeharrak, baldintza edo betekizun ez betetzea.

2.– Balizko ez-betetzeen maila honako irizpide hauen arabera zehaztuko da:

a) Ez-betetze erabatekoa: dirulaguntza emateko xedea edo hori justifikatzeko betebeharra erabat ez betetzea emandako dirulaguntzaren % 100 itzultzeko arrazoia izango da. Era berean, osorik bete ez dela ulertuko da diruz lagundutako ekintzak helburuen % 35 lortzen ez badu, eta horiek honela neurtuko dira: prestakuntzaren ordu kopuruaren adierazlea bider ikasle parte-hartzaileak.

b) Ez-betetze partziala: dirulaguntza emateko xedea edo hori justifikatzeko betebeharra hein batean ez betetzeak emandako dirulaguntza aldatzea edo hein batean itzultzea ekarriko du. Aurreko lerrokan aipatutako adierazlea % 35 eta % 100 bitartean betetzen bada, emandako dirulaguntza 18. artikuluan aurreikusitako baldintzetan ordainduko da.

3.– Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak abiaraziko du itzultzeko prozedura, eta laguntzaren erakunde onuradunari jakinaraziko dio, ez-betetzea eragin duen edo duten gertaeraren edo gertaeren berri emateko. Hori ez ezik, alegazioak edo egokitzeak jotzen dituen egiaztagiria aurkezteko hamabost eguneko epea duela ere jakinaraziko dio.

4.– Alegazioak aurkeztu ondoren edo horiek aurkezteko epea bukatu ondoren, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiak ebazpena egingo du.

Laguntzak itzultzeko prozedura gehienez ere 12 hilabeteko epean ebatzi beharko da.

5.– Ebazpenean ez-betetzereen bat izan dela iritziz gero, dirulaguntza jasotzeko eskubidea galdutzat emango da, eta, hala badagokio, ebazpena jakinarazten denetik hasita gehienez bi hilabeteko epean, dagozkion diru kopuruak Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuari itzuli beharra ekarriko du. Epe hori borondatezko epeztat joko da.

Itzulketa borondatezko aldiaren egiten ez bada, itzuli beharrekoak premiamendu bidez berreskuratzeke izapideak hasiko dira.

24. artikulua.– Datu pertsonalen tratamendua.

Datu pertsonalen babesaren arloan, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorrean (Erregelamendua, 2016/679 (EB)) eta Datu pertsonalak babesteko eta eskubide digitalak bermatzeko 3/2018 Lege Organikoan xedatutakoaren arabera jokatu du. Biltzen dituen datu pertsonalak «Enpleguko eta enplegurako prestakuntzako dirulaguntzak» tratamendu-jardueran erabiliko dira. Horren ardura du Lanbidek, Lanbideren eskumeneko enplegu-politika aktiboei loturiko dirulaguntza kudeatzeko eta kontrolatzeko, iruzurra jazartzeko eta estatistikak egiteko helburuekin. Bildu diren datuak beharrezkoak dira Lanbideri esleitutako ahalmen publikoak gauzatzeko eta lege-betekizunak betetzeko, eta arloan eskumena duten administrazio publikoei jakinarazi ahal izango zaizkie.

Datuen titularrek datuak eskuratzeko, zuzentzeko eta ezabatuzeko, datuen aurka egiteko eta datuen tratamendua mugatzeko eskubideak erabili ahal izango dituzte, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuari idatzizko jakinarazpen bat bidalita: Jose Atxotegi kalea 1, 01009 Vitoria-Gasteiz.

Datuen babesari buruzko informazio eta xehetasun gehiago hemen: <http://www.lanbide.eus-kadi.eus/orokorra/-/informazioa/erabiltzeko-baldintzak-eta-segurtasun-politika/>

25. artikulua.– Dirulaguntzen arloan aplikatu beharreko arauak.

1.– Dirulaguntzen programa honi honako arau hauetan bildutako dirulaguntzei buruzko araubide juridikoa aplikatu behar zaio: Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra eta hura garatzen duen Erregelamendua (uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren bidez onartutakoa). Era berean, arau hauetan xedatutakoa ere aplikatuko da: Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauari buruzko testu bateginaren VI. titulua eta VII. tituluko III. kapitulua –azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuak onartzen duena– eta abenduaren 17ko 698/1991 Dekretua (horretan arautzen dira Euskal Autonomia Erkidegoaren Aurrekontu Orokorren kargurako dirulaguntzen bermeen eta itzulketen araubide orokorra eta bertan ezartzen dira horien kudeaketan parte hartzen duten erakunde laguntzaileen betekizunak, araubidea eta betebeharrak).

2.– Deialdi honetan xedatu ez den guztian, irailaren 9ko 30/2015 Legea, enplegurako lanbide-heziketaren sistema arautzen duena lan arloan, aplikatuko da. 694/2017 Errege Dekretua, uztailaren 3koa, lan-arloan enplegurako lanbide-heziketaren sistema arautzen duen irailaren 9ko 30/15 Legea garatzen duena, eta TMS/368/2019 Agindua, martxoaren 28koa, irailaren 9ko 30/2015 Legea garatzen duen uztailaren 3ko 694/2017 Errege Dekretua garatzekoa.

3.– Dirulaguntzak Europako Gizarte Funtsak kofinantzatu dituzenez, bete beharrekoak dituzte Europako Parlamentuak eta Kontseiluak 2013ko abenduaren 17an emandako 1303/2013 (EB) Erregelamendua, eta Europako Parlamentuak eta Kontseiluak 2013ko abenduaren 17an emandako 1304/2013 (EB) Erregelamendua, Europako Gizarte Funtsari buruzkoa eta Kontseiluaren 1083/2006 (EE) Erregelamendua indargabetzekoa.

I. ERANSKINA

PRESTAKUNTZA-IBILBIDE PROGRAMAGARRIAK

BIZKAIKO ESKAINTZA

1.– Sukaldaritza + Zerbitzua (Kualifikazio-prestakuntza: 1. mailako 2 PZ oso: HOTR0108 + HOTR0208 + HOT, INA eta COM lanbide-arloetako 3 modulu partzial + HOT lanbide-arloko 1. mailako PZren aurretiko prestakuntza + zeharkako oinarrizko konpetentziak)

A blokea			
	KODEA	PRESTAKUNTZA	ORDUAK
Inskribatutako espezialitatea	HOTR00020V	1. mailako PZren aurretiko prestakuntza: Sukaldaritzako oinarrizko lanak	80
HOTR0108ko PZ1 osoa	MF0255_1	Sukaldaritzako hornikuntza, aurretiazko elaborazioa eta kontserbazioa	120
	MF0256_1	Sukaldaritzako oinarrizko elaborazioa	180
		Praktiketako modulua	120
		Zeharkako oinarrizko konpetentziak	400
		Guztira	900

B blokea			
	KODEA	PRESTAKUNTZA	ORDUAK
HOTR0208ko PZ1 osoa	MF0257_1	Jatetxeko eta tabernako oinarrizko zerbitzua	120
	MF0258_1	Hornikuntza, edariak eta janari lasterrak	120
HOTR0308ko PZ1 partziala	MF1090_1	Catering-zerbitzuak hartzea eta garbitzea	90
INAQ0108ko PZ1 partziala	MF0546_1	Elikagaien industriako higiene orokorra	80
COMT0211ko PZ1 partziala	MF1329_1	Bezeroen oinarrizko arreta	50
		Praktiketako modulua	190
		Zeharkako oinarrizko konpetentziak	300
		Guztira	950
		Guztira (A+B)	1.850

2.– Arotzeria + Altzarigintza (Kualifikazio-prestakuntza: 1. mailako 2 PZ oso: MAMD0109 + MAMD0209 + TCP + COM lanbide-arloetako 4 modulu partzial + EOC eta ELE lanbide-arloko 1. mailako PZren aurretiko prestakuntza + zeharkako oinarrizko konpetentziak)

A blokea			
	KODEA	PRESTAKUNTZA	ORDUAK
MAMD0109ko PZ1 osoa	MF0880_1	Arotzeriako eta altzarigintzako elementuetan bernizak eta lakak aplikatzeko tresneria eta bitartekoak prestatzea	40
	MF0167_1	Arotzeriako eta altzarigintzako akaberako gainazaleko produktuak aplikatzea	70
	MF0881_1	Arotzeriako eta altzarigintzako produktuetako gainazala egokitzea eta lehortzeko eragiketak	60
TCPF0209ko PZ1 partziala	MF0428_1	Tapizgintzako materialak eta zerbitzuak	50
TCPF0209ko PZ1 partziala	MF0429_1	Altzariak tapizatzea	150
		Praktiketako modulua	130
		Zeharkako oinarrizko konpetentziak	400
		Guztira	900

B blokea			
	KODEA	PRESTAKUNTZA	ORDUAK
Inskribatutako espezialitatea	EOCB00010V	1. mailako PZren aurretiko prestakuntza: Eraikuntza eta obra zibila lanbide-arloa	160
Inskribatutako espezialitatea	ELEE00020V	1. mailako PZren aurretiko prestakuntza: Etxeko oinarrizko elektrizitatea	80
MAMD0209ko PZ1 osoa	MF0162_1	Zura eta deribatutako mekanizatzea	90
	MF0173_1	Altzariak eta arotzeriako elementuak doitztea eta enbalatzea	50
	MF0882_1	Arotzeriako eta altzarigintzako elementuak muntatzea eta instalatzea	80
COMT0211ko PZ1 partziala	MF1329_1	Bezeroen oinarrizko arreta	50
		Praktiketako modulua	140
		Zeharkako oinarrizko konpetentziak	300
		Guztira	950
		Guztira (A+B)	1.850

3.– Elektrizitatea + Mekanizatua (Kualifikazio-prestakuntza: 1. mailako 2 PZ oso: ELEQ0111 + FMEE0108 + FME lanbide-arloko 1. mailako PZren aurretiko prestakuntza + zeharkako oinarrizko kompetentziak)

A blokea			
	KODEA	PRESTAKUNTZA	ORDUAK
ELEQ0111ko PZ1 osoa	MF1561_1	Ekipo elektriko eta elektronikoak mantentzeko lan osagarriak	150
	MF1559_1	Ekipo elektriko eta elektroniko muntaketako muntatze-lanak	110
	MF1560_1	Ekipo elektriko eta elektroniko muntaketako konexio-lanak	110
		Praktiketako modulua	130
		Zeharkako oinarrizko kompetentziak	400
		Guztira	900

B blokea			
	KODEA	PRESTAKUNTZA	ORDUAK
Inskribatutako espezialitatea	FMEH0015OV	1. mailako PZren aurretiko prestakuntza: Soldaduraren oinarrizko eragiketarako sarrera	80
FMEE0108ko PZ1 osoa	MF0087_1	Fabrikatzeko eragiketak	220
	MF0088_1	Muntatzeko eragiketak	180
		Praktiketako modulua	170
		Zeharkako oinarrizko kompetentziak	300
		Guztira	950
		Guztira (A+B)	1.850

4.– Iturgintza + elektrizitatea (Kualifikazio-prestakuntza: 1. mailako 2 PZ oso: IMAI0108 + ELEQ0111 + IMAI eta ELE lanbide-arloetako 1. mailako PZren aurretiko prestakuntza + zeharkako oinarrizko kompetentziak)

A blokea			
	KODEA	PRESTAKUNTZA	ORDUAK
Inskribatutako espezialitatea	IMAI00010V	1. mailako PZren aurretiko prestakuntza: Oinarrizko iturgintza-lanak etxebizitzetan	80
IMAI0108ko PZ1 osoa	MF1154_1	Hodiak instalatzea	170
	MF1155_1	Sanitarioak eta girotzeko elementuak instalatzea eta mantentzea	180
		Praktiketako modulua	70
		Zeharkako oinarrizko kompetentziak	400
		Guztira	900

B blokea			
	KODEA	PRESTAKUNTZA	ORDUAK
Inskribatutako espezialitatea	ELEE00020V	1. mailako PZren aurretiko prestakuntza: Etxeko oinarrizko elektrizitatea	80
ELEQ0111ko PZ1 osoa	MF1559_1	Ekipo elektriko eta elektroniko muntaketako muntatze-lanak	110
	MF1560_1	Ekipo elektriko eta elektroniko muntaketako konexio-lanak	110
	MF1561_1	Ekipo elektriko eta elektronikoak mantentzeko lan osagarriak	150
		Praktiketako modulua	200
		Zeharkako oinarrizko kompetentziak	300
		Guztira	950
		Guztira (A+B)	1.850

5.– Merkataritza + Administrazioa (Kualifikazio-prestakuntza: 1. mailako 3 PZ oso: COMT0211 + COML0110 + ADGG0508 + ADG lanbide-arloko modulu partzial 1 + zeharkako oinarrizko konpetentziak)

A blokea			
	KODEA	PRESTAKUNTZA	ORDUAK
COMT0211ko PZ1 osoa	MF1327_1	Salmenta-puntuak produktuak birjartzeko, kokatzeko eta egokitzeko eragiketa lagungarriak egitea	90
	MF1326_1	Eskaerak prestatzea	40
	MF1328_1	Produktuak manipulatu eta lekuz aldatzea merkataritza-azaleran barrena eta hurbilean banatzeko, eskuzko transpaletak eta orgak erabiliz	50
	MF1329_1	Bezeroari arreta eta informazio operatibo, egituratu eta protokolarizatu ematea	50
COML0110eko PZ1 osoa	MF1325_1	Biltegiko lan osagarriak	80
	MF1326_1	Eskaerak prestatzea	40
	MF0432_1	Zamak orga jasotzaileekin erabiltzea.	50
		Praktiketako modulua	140
	Zeharkako oinarrizko konpetentziak	360	
		Guztira	900

B blokea			
	KODEA	PRESTAKUNTZA	ORDUAK
ADGG0508ko PZ1 osoa	MF0973_1	Datuak grabatzea	90
	MF0974_1	Datuen, testuen eta dokumentazioaren tratamendua	150
	MF0971_1	Erreprodukzioa eta artxibatzea	120
ADGG0408ko PZ1 partziala	MF0970_1	Komunikazioko oinarrizko eragiketak	120
		Praktiketako modulua	170
		Zeharkako oinarrizko konpetentziak	300
		Guztira	950
		Guztira (A+B)	1.850

6.– Ibilgailuak (Kualifikazio-prestakuntza: 1. mailako 2 PZ oso: TMVG0109 + TMVL0109 + ELE eta FME lanbide-arloko 1. mailako PZren aurretiko prestakuntza + zeharkako oinarrizko konpetentziak)

A blokea			
	KODEA	PRESTAKUNTZA	ORDUAK
Inskribatutako espezialitatea	ELEE00020V	1. mailako PZren aurretiko prestakuntza: Etxeko oinarrizko elektrizitatea	160
TMVG0109ko PZ1 osoa	MF0620_1	Oinarrizko mekanizazioa	90
	MF0623_1	Ibilgailuen mekanikako oinarrizko teknikak	90
	MF0624_1	Ibilgailuen elektrizitateko oinarrizko teknikak	90
		Praktiketako modulua	160
	Zeharkako oinarrizko konpetentziak	310	
		Guztira	900

B blokea			
	KODEA	PRESTAKUNTZA	ORDUAK
Inskribatutako espezialitatea	FMEH00120V	1. mailako PZren aurretiko prestakuntza: Fabrikazio Mekanikoa lanbide-arloa	160
TMVL0109ko PZ1 osoa	MF0620_1	Oinarrizko mekanizazioa	90
	MF0621_1	Elementu mugigarriak ordezkatzeko oinarrizko teknikak	90
	MF0622_1	Gainazalak prestatzeko oinarrizko teknikak	90
		Praktiketako modulua	220
	Zeharkako oinarrizko konpetentziak	300	
		Guztira	950
		Guztira (A+B)	1.850

7.– Elektrizitatea + Elektronika (Kualifikazio-prestakuntza: 1. mailako 2 PZ oso: ELEQ0111 + ELES0208 + IFC lanbide-arloko modulu partzial 1 + zeharkako oinarritzko konpetentziak)

A blokea			
	KODEA	PRESTAKUNTZA	ORDUAK
ELEQ0111ko PZ1 osoa	MF1559_1	Ekipo elektriko eta elektronikoen muntaketako muntatze-lanak	110
	MF1560_1	Ekipo elektriko eta elektronikoen muntaketako konexio-lanak	110
	MF1561_1	Ekipo elektriko eta elektronikokoak mantentzeko lan osagarriak	150
		Praktiketako modulua	130
		Zeharkako oinarritzko konpetentziak	400
		Guztira	900

B blokea			
	KODEA	PRESTAKUNTZA	ORDUAK
IFCT0108ko PZ1 partziala	MF1207_1	Informatika-osagaiak muntatzeko eragiketa osagarriak	130
ELES0208ko PZ1 osoa	MF0816_1	Eraikinetan behe-tentsioko eta domotikako instalazio elektrikoak muntatzeko eragiketak	150
	MF0817_1	Telekomunikazio-instalazioak muntatzeko eragiketak	180
		Praktiketako modulua	210
		Zeharkako oinarritzko konpetentziak	280
		Guztira	950
		Guztira (A+B)	1.850

8.– Irudi pertsonala: Estetika eta ile-apaindegia (Prestakuntza gaitzailea: 1. mailako 2 PZ oso: IMPE0108 + IMPQ0108 + IMP lanbide-arloko 2 modulu partzial + IMP lanbide-arloko 1. mailako PZren aurretiko 2 prestakuntza + zeharkako oinarritzko konpetentziak)

A blokea			
	KODEA	PRESTAKUNTZA	ORDUAK
Inskribatutako espezialitatea	IMPE0002OV	1. mailako PZren aurretiko prestakuntza: Estetikako eta zaintza pertsonaleko oinarritzko egitekoak	240
IMPE0108ko PZ1 osoa	MF0343_1	Edertasun-zentroetako higieena eta segurtasuna	30
	MF0344_1	Azazkalen oinarritzko zaintza estetikoak	60
	MF0345_1	Depilazio mekanikoa eta ilea koloregabetzea	90
	MF0346_1	Eguneko makillajea	60
		Praktiketako modulua	120
		Zeharkako oinarritzko konpetentziak	300
		Guztira	900

B blokea			
	KODEA	PRESTAKUNTZA	ORDUAK
Inskribatutako espezialitatea	IMPE0002OV	1. mailako PZren aurretiko prestakuntza: Ile-apainketako oinarritzko egitekoak	160
IMPQ0108ko PZ1 osoa	MF0058_1	Ile-apainketako higieena eta asepsia	40
	MF0059_1	Orrazkeraren forma aldatzeko eta orrazten hasten muntaiak	90
	MF0060_1	Ilearen kolorea aldatzeko kosmetikoak aplikatzea	80
IMPQ0208ko PZ1 partziala	MF0348_2	Kolorea ile-apainketan	90
IMPQ0208ko PZ1 partziala	MF0349_2	Orrazkerak, akaberak eta orrazkera bilduak	120
		Praktiketako modulua	120
		Zeharkako oinarritzko konpetentziak	250
		Guztira	950
		Guztira (A+B)	1.850

GIPUZKOAKO ESKAINTZA

1.– Sukaldaritza + Zerbitzua (Kualifikazio-prestakuntza: 1. mailako 2 PZ oso: HOTR0108 + HOTR0208 + HOT, INA eta COM lanbide-erlorteko 3 modulu partzial + HOT lanbide-erlorteko 1. mailako PZren aurretiko prestakuntza + oinarritzko zeharkako konpetentziak)

A blokea			
	KODEA	PRESTAKUNTZA	ORDUAK
Inskribatutako espezialitatea	HOTR00020V	1. mailako PZren aurretiko prestakuntza: Sukaldaritzako oinarritzko lanak	80
HOTR0108ko PZ1 osoa	MF0255_1	Sukaldaritzako hornikuntza, aurretiazko elaborazioa eta kontserbazioa	120
	MF0256_1	Sukaldaritzako oinarritzko elaborazioa	180
		Praktiketako modulua	120
		Zeharkako oinarritzko konpetentziak	400
Guztira			900

B blokea			
	KODEA	PRESTAKUNTZA	ORDUAK
HOTR0208ko PZ1 osoa	MF0257_1	Jatetxeko eta tabernako oinarritzko zerbitzua	120
	MF0258_1	Hornikuntza, edariak eta janari lasterrak	120
HOTR0308ko PZ1 partziala	MF1090_1	Catering-zerbitzuak hartzea eta garbitzea	90
INAQ0108ko PZ1 partziala	MF0546_1	Elikagaien industriako higie-ne orokorra	80
COMT0211ko PZ1 partziala	MF1329_1	Bezeroen oinarritzko arreta	50
		Praktiketako modulua	190
		Zeharkako oinarritzko konpetentziak	300
Guztira			950
Guztira (A+B)			1.850

2.– Elektrizitatea + Mekanizatua (Kualifikazio-prestakuntza: 1. mailako 2 PZ oso: ELEQ0111 + FMEE0108 + FME lanbide-erlorteko 1. mailako PZren aurretiko prestakuntza + zeharkako oinarritzko konpetentziak)

A blokea			
	KODEA	PRESTAKUNTZA	ORDUAK
ELEQ0111ko PZ1 osoa	MF1561_1	Ekipo elektriko eta elektronikoak mantentzeko lan osagarriak	150
	MF1559_1	Ekipo elektriko eta elektroniko- en muntaketako muntatze-lanak	110
	MF1560_1	Ekipo elektriko eta elektroniko- en muntaketako konexio-lanak	110
		Praktiketako modulua	130
		Zeharkako oinarritzko konpetentziak	400
Guztira			900

B blokea			
	KODEA	PRESTAKUNTZA	ORDUAK
Inskribatutako espezialitatea	FMEH00150V	1. mailako PZren aurretiko prestakuntza: Soldaduraren oinarritzko eragiketarako sarrera	80
FMEE0108ko PZ1 osoa	MF0087_1	Fabrikatzeko eragiketak	220
	MF0088_1	Muntatzeko eragiketak	180
		Praktiketako modulua	170
		Zeharkako oinarritzko konpetentziak	300
Guztira			950
Guztira (A+B)			1.850

3.– Iturgintza + elektrizitatea (Kualifikazio-prestakuntza: 1. mailako 2 PZ oso: IMAI0108 + ELEQ0111 + IMAI eta ELE lanbide-arloetako 1. mailako PZren aurretiko prestakuntza + zeharkako oinarrizko kompetentziak)

A blokea			
	KODEA	PRESTAKUNTZA	ORDUAK
Inskribatutako espezialitatea	IMAI00010V	1. mailako PZren aurretiko prestakuntza: Oinarrizko iturgintza-lanak etxebizitzetan	80
IMAI0108ko PZ1 osoa	MF1154_1	Hodiak instalatzea	170
	MF1155_1	Sanitarioak eta girotzeko elementuak instalatzea eta mantentzea	180
		Praktiketako modulua	70
		Zeharkako oinarrizko kompetentziak	400
		Guztira	900

B blokea			
	KODEA	PRESTAKUNTZA	ORDUAK
Inskribatutako espezialitatea	ELEE00020V	1. mailako PZren aurretiko prestakuntza: Etxeko oinarrizko elektrizitatea	80
ELEQ0111ko PZ1 osoa	MF1559_1	Ekipo elektriko eta elektronikoen muntaketako muntatze-lanak	110
	MF1560_1	Ekipo elektriko eta elektronikoen muntaketako konexio-lanak	110
	MF1561_1	Ekipo elektriko eta elektronikoak mantentzeko lan osagarriak	150
		Praktiketako modulua	200
		Zeharkako oinarrizko kompetentziak	300
		Guztira	950
		Guztira (A+B)	1.850

4.– Elektrizitatea + Elektronika (Kualifikazio-prestakuntza: 1. mailako 2 PZ oso: ELEQ0111 + ELES0208 + IFC lanbide-arloko modulu partzial 1 + zeharkako oinarrizko kompetentziak)

A blokea			
	KODEA	PRESTAKUNTZA	ORDUAK
ELEQ0111ko PZ1 osoa	MF1559_1	Ekipo elektriko eta elektronikoen muntaketako muntatze-lanak	110
	MF1560_1	Ekipo elektriko eta elektronikoen muntaketako konexio-lanak	110
	MF1561_1	Ekipo elektriko eta elektronikoak mantentzeko lan osagarriak	150
		Praktiketako modulua	130
		Zeharkako oinarrizko kompetentziak	400
		Guztira	900

B blokea			
	KODEA	PRESTAKUNTZA	ORDUAK
IFCT0108ko PZ1 partziala	MF1207_1	Informatika-osagaiak muntatzeko eragiketa osagarriak	130
ELES0208ko PZ1 osoa	MF0816_1	Eraikinetan behe-tentsioko eta domotikako instalazio elektrikoak muntatzeko eragiketak	150
	MF0817_1	Telekomunikazio-instalazioak muntatzeko eragiketak	180
		Praktiketako modulua	210
		Zeharkako oinarrizko kompetentziak	280
		Guztira	950
		Guztira (A+B)	1.850

ARABAKO ESKAINTZA

1.– Elektrizitatea + Mekanizatua (Kualifikazio-prestakuntza: 1. mailako 2 PZ oso: ELEQ0111 + FMEE0108 + FME lanbide-arloko 1. mailako PZren aurretiko prestakuntza + zeharkako oinarrizko kompetentziak)

A blokea			
	KODEA	PRESTAKUNTZA	ORDUAK
ELEQ0111ko PZ1 osoa	MF1561_1	Ekipo elektriko eta elektronikoak mantentzeko lan osagarriak	150
	MF1559_1	Ekipo elektriko eta elektronikoen muntaketako muntatze-lanak	110
	MF1560_1	Ekipo elektriko eta elektronikoen muntaketako konexio-lanak	110
		Praktiketako modulua	130
		Zeharkako oinarrizko kompetentziak	400
		Guztira	900

B blokea			
	KODEA	PRESTAKUNTZA	ORDUAK
Inskribatutako espezialitatea	FMEH0015OV	1. mailako PZren aurretiko prestakuntza: Soldaduraren oinarrizko eragiketarako sarrera	80
FMEE0108ko PZ1 osoa	MF0087_1	Fabrikatzeko eragiketak	220
	MF0088_1	Muntatzeko eragiketak	180
		Praktiketako modulua	170
		Zeharkako oinarrizko kompetentziak	300
		Guztira	950
		Guztira (A+B)	1.850

2.– Ibilgailuak (Kualifikazio-prestakuntza: 1. mailako 2 PZ oso: TMVG0109 + TMVL0109 + ELE eta FME lanbide-arloko 1. mailako PZren aurretiko prestakuntza + zeharkako oinarrizko kompetentziak)

A blokea			
	KODEA	PRESTAKUNTZA	ORDUAK
Inskribatutako espezialitatea TMVG0109ko PZ1 osoa	ELEE00020V	1. mailako PZren aurretiko prestakuntza: Etxeko oinarrizko elektrizitatea	160
	MF0620_1	Oinarrizko mekanizazioa	90
	MF0623_1	Ibilgailuen mekanikako oinarrizko teknikak	90
	MF0624_1	Ibilgailuen elektrizitateko oinarrizko teknikak	90
		Praktiketako modulua	160
		Zeharkako oinarrizko kompetentziak	310
		Guztira	900

B blokea			
	KODEA	PRESTAKUNTZA	ORDUAK
Inskribatutako espezialitatea TMVL0109ko PZ1 osoa	FMEH0012OV	1. mailako PZren aurretiko prestakuntza: Fabrikazio Mekanikoa lanbide-arloa	160
	MF0620_1	Oinarrizko mekanizazioa	90
	MF0621_1	Elementu mugigarriak ordezkatzeko oinarrizko teknikak	90
	MF0622_1	Gainazalak prestatzeko oinarrizko teknikak	90
		Praktiketako modulua	220
		Zeharkako oinarrizko kompetentziak	300
		Guztira	950
		Guztira (A+B)	1.850

II. ERANSKINA

ONARRIZKO KONPETENTZIA PROGRAMAGARRIEI LOTUTAKO PRESTAKUNTZAKO
 PRESTAKUNTZA-ESPEZIALITATEEN KATALOGOA
 (Gehienez 400 ordu A blokean eta 300 ordu B blokean)

LANBIDE-ARLOA	KODEA	IZENA	MAILA	ORDUAK
FCO	FCOV0005OV	1. mailako lanbide-ziurtagirien aurretiko funtsezko konpetentziak	0	150
FCO	FCOV22	Komunikazioa gaztelaniaz N2	2	120
FCO	FCOV23	Konpetentzia matematikoa N2	2	120
FCO	FCOV27	Hizkuntzarik gabeko profesionaltasun ziurtagirietarako 2. mailako funtsezko konpetentziak: hizkuntza-komunikazioa	2	240
FCO	FCOV05	Komunikazioa atzerriko hizkuntzetan (ingelesa) N2	2	180
FCO	FCOO0004OV	Enplegagarritasunerako oinarrizko trebetasun soziolaboralak	0	55
FCO	FCOO0009OV	Lanpostuetarako konpetentzia sozio-laboralak	0	120
FCO	FCOO0010OV	Konpetentzia pertsonal eta profesioaletan entrenatzea	1	150
FCO	FCOO0001OV	Lan-ingurunera bideratutako konpetentzia soziopertsonalak	0	140
SSC	SSCE30EXP	Euskara A1	1	125
SSC	SSCE31EXP	Euskara A2	1	200
IFCT	IFCT45	Oinarrizko konpetentzia digitalak	1	60

2019ko uztailaren 17a, asteazkena



III. ERANSKINA

BALORAZIO-IRIZPIDEA (9.1.E1 art.)

SINTESI-ADIERAZLEA

ZIURTAGIRIA, KUALIFIKAZIO APALA DUTEN EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO GAZTE LANGABEEN AKTIBAZIO SOZIOLABORALERAKO 2019-2021 ALDIKO DIRULAGUNTZA-DEIALDIAREN 9.1.E1 ARTIKULUAN XEDATUTAKO BALORAZIO-IRIZPIDEARI BURUZKOA. DEIALDI HORI LANBIDE-EUSKAL ENPLEGU ZERBITZUAREN ADMINISTRAZIO-KONTSEILUAK ONARTU DU 2019KO UZTAILAREN 4AN EGINDAKO BILKURAN (EHAA, 2019-07-17)

(Adierazi zein den administrazio eskuduna enplegurako lanbide-heziketaren arloan, ziurtagiri honi dagozkion deialdien kudeatzaile gisara)

..... jaunak/andreak, goian aipatutako Administrazio Publikoaren gisara, eta aipatutako deialdiaren 9.1.E1 artikuluan xedatutako balorazio-irizpideari dagokionez,

ZIURTATZEN DU:

..... prestakuntza-erakundea, IFK zenbakia duena, lehentasunez langabeei zuzendutako prestakuntzara bideratutako dirulaguntzen deialdiko onuraduna izan dela. Laguntza horiek, Administrazio Publiko honek 2017ko ekitaldian finantzatu dituenak etaan (adierazi dagozkion aldizkari ofizialaren erreferentzia) argitaratu zirenak, jarraian adierazitako lanbide-arloei dagozkien prestakuntza-ekintzak gauzatzeagatik eman dira, eta horietako bakoitzak jarraian adierazitako sintesi-indizea lortu du, aipatutako deialdiaren 9.1.E1 artikuluan xedatutako baldintzen arabera:

LANBIDE-ARLOA	SINTESI-ADIERAZLEA

Eta horrela jasota gera dadin eta dagozkion ondorioak izan ditzan sinatu eta zigilatu dut agiri hau,(e)n, 2019koren(e)(a)n.

.....jauna/andrea

BALIOZKOTZEKO ERREFERENTZIA:

Izen-abizenak:

Kargua:

Harremanetarako telefonoa:

Helbide elektronikoa:

2019ko uztailaren 17a, asteazkena



IV. ERANSKINA

BALORAZIO-IRIZPIDEA (9.1.E2 art.)

ENPLEGAGARRITASUN-INDIZEA

ZIURTAGIRIA, KUALIFIKAZIO APALA DUTEN EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO GAZTE LANGABEEN AKTIBAZIO SOZIOLABORALERAKO 2019-2021 ALDIKO DIRULAGUNTZA-DEIALDIAREN 9.1.E2 ARTIKULUAN XEDATUTAKO BALORAZIO-IRIZPIDEARI BURUZKOA. DEIALDI HORI LANBIDE-EUSKAL ENPLEGU ZERBITZUAREN ADMINISTRAZIO-KONTSEILUAK ONARTU DU 2019KO UZTAILAREN 4AN EGINDAKO BILKURAN (EHAA, 2019-07-17)

(Adierazi zein den administrazio eskuduna enplegurako lanbide-heziketaren arloan, ziurtagiri honi dagozkion deialdien kudeatzaile gisara)

..... jaunak/andreak, goian aipatutako Administrazio Publikoaren gisara, eta aipatutako deialdiaren 9.1.E2 artikuluan xedatutako balorazio-irizpideari dagokionez,

ZIURTATZEN DU:

..... prestakuntza-erakundea, IFK zenbakia duena, lehentasunez langabeei zuzendutako prestakuntzara bideratutako dirulaguntzen deialdiko onuraduna izan dela. Laguntza horiek, Administrazio Publiko honek 2017ko ekitaldian finantzatu dituenak etaan (adierazi dagoen aldizkari ofizialaren erreferentzia) argitaratu zirenak, jarraian adierazitako lanbide-arloei dagozkien prestakuntza-ekintzak gauzatzearagatik eman dira, eta horietako bakoitzak jarraian adierazitako enplegagarritasun-indizea lortu du, aipatutako deialdiaren 9.1.E2 artikuluan xedatutako baldintzen arabera:

ESPEZIALITATE-KODEA	IZENA	ENPLEGAGARRITASUN-INDIZEA

Eta horrela jasota gera dadin eta dagozkion ondorioak izan ditzan sinatu eta zigilatu dut agiri hau,(e)n, 2019koren(e)(a)n.

..... jauna/andrea

BALIOZKOTZEKO ERREFERENTZIA:

Izen-abizenak:

Kargua:

Harremanetarako telefonoa:

Helbide elektronikoa:

2019ko uztailaren 17a, asteazkena

V. ERANSKINA
PRESTAKUNTZA-EKINTZAK BALORATZEKO IRIZPIDEAK

A	2018-2019ko ikasturtean prestakuntza-zikloak emateko itundutako erakundeak		10 puntu
	Oinarrizko Mailakoak	5	
	Erdi Mailakoak	5	
B	Helduen Etengabeko Hezkuntzan (HEH) Hezkuntza Sailaren mende ez dagoen unibertsitatez kanpoko zentro pribatua edo publikoa izatea		10 puntu
C	2017-2018 ikasturtean, Hezkuntza Sailarekin, Oinarrizko Lanbide Heziketa egiten duten ikasleak		20 puntu
	1etik 30era bitartean	2	
	31 eta 60 bitartean	4	
	61 eta 90 bitartean	6	
	91 eta 120 bitartean	8	
	121 eta 150 bitartean	10	
	151 eta 180 bitartean	12	
	181 eta 210 bitartean	14	
	211 eta 240 bitartean	16	
	241 eta 270 bitartean	18	
	271 edo gehiago	20	
D	Prestakuntza-erakundeen gizarte-erantzukizuna		20 puntu
D.1	Enplegua sortzeko konpromisoa		5 puntu
	Alta-egoeran batez beste 0 eta 25 langile bitartean izatea	1	
	Alta-egoeran batez beste 26 eta 50 langile bitartean izatea	2	
	Alta-egoeran batez beste 51 eta 75 langile bitartean izatea	3	
	Alta-egoeran batez beste 76 eta 100 langile bitartean izatea	4	
	Alta-egoeran batez beste 101 langile baino gehiago izatea	5	
D.2	Konpromisoa enpleguaren kalitatearekin		5 puntu
	Langileen % 10 eta 20 bitartean, kontratu mugagabeekin	1	
	Langileen % 21 eta 30 bitartean, kontratu mugagabeekin	2	
	Langileen % 31 eta 40 bitartean, kontratu mugagabeekin	3	
	Langileen % 41 eta 50 bitartean, kontratu mugagabeekin	4	
	Langileen % 50etik gora, kontratu mugagabeekin	5	
D.3	Emakumeen eta gizonen berdintasunarekiko konpromisoa: Langile emakumeen %-a		5 puntu
	% 40 eta % 50 artean	2	
	% 51 eta % 60 artean	3	
	% 61 eta % 75 artean	4	
	% 75etik gora	5	

D.4	Aukera-berdintasunarekiko konpromisoa: desgaitasuna		5 puntu
	Desgaitasuna duen langile 1	1	
	Desgaitasuna duten 2 langile	2	
	Desgaitasuna duten 3 langile	3	
	Desgaitasuna duten 4 langile	4	
	Desgaitasuna duten 5 langile edo gehiago	5	
E	2016ko deialdietan langabeei zuzendutako prestakuntzaren kalitate-adierazleak		20 puntu
E.1	2016ko deialdietako sintesi-adierazlea		10 puntu
	60 baino gutxiago	0	
	60 < 65	1	
	65 < 70	2	
	70 < 75	3	
	75 < 80	4	
	80 < 85	5	
	85 < 90	6	
	90 < 95	7	
	95 < 100	8	
	100 < 105	9	
	105 edo gehiago	10	
E.2	2016ko deialdietako enplegarritasun-tasa		10 puntu
	< 40 puntu.	0	
	40 < 45	1	
	45 < 50	2	
	50 < 55	3	
	55 < 60	4	
	60 < 65	5	
	65 < 70	6	
	70 < 75	7	
	75 < 80	8	
	80 < 90	9	
	90 edo gehiago	10	
F	Langabetuen prestakuntzako esperientzia lanbide-arloen arabera: 2016-2017-2018		20 puntu
	300 parte-hartzaitetik gora	20	
	201-300 parte-hartzaile artean	15	
	101-200 parte-hartzaile artean	10	
	50-100 parte-hartzaile artean	5	
	15-49 parte-hartzaile artean	2	